

Oinordeko izateko ezduintasuna estreinakoz araututa, Balear Uharteetako zuzenbide zibilean, apirilaren 27ko 3/2009 Legearen ondorioz

ESTHER URRUTIA IDOIAGA

Zuzenbide zibileko irakaslea. Deustuko Unibertsitatea

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 2009/05/10

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 2009/06/16

Laburpena: Azterlan honen xedea da Balear Uharteetako zuzenbide zibilean gertatutako eraldaketa zehatz bat azaltzea, hain zuzen ere, apirilaren 27ko 3/2009 Legeak oinordeko izateko ezduintasun- eta jaraungabetze-arrazoietan eragindakoa. Eraldaketa horrek hur-hurrean izan du 2008. urtean Katalunian gertatutakoa, eta, horregatik, aurrez aurre jartzen dira biak, antzekotasunak eta desberdintasunak nabarmentzeko. Eta bukaeran azaltzen da zein den ezduintasunaren arauketa Euskal Herriko foru-zuzenbideetan, Nafarroakoan nahiz Euskal Autonomia Erkidegokoan, etorkizunerako ildoak proposatzearekin batera.

Gako-hitzak: Oinordetza-zuzenbidea; oinordeko izateko ezduintasuna; foru-zuzenbideak; Balear Uharteak.

Resumen: Este estudio se centra en el análisis de la Ley 3/2009, de 27 de abril, de modificación de la Compilación de Derecho Civil de las Illes Balears, sobre causas de indignidad sucesoria y desheredamiento. Dicha reforma legislativa sigue la estela marcada por la producida en el año 2008 en Catalunya, por lo que en este estudio se contraponen ambas, a fin de destacar las similitudes y divergencias existentes entre las mismas. Para concluir, se analiza la regulación de la indignidad sucesoria en los Derechos civiles forales de la Comunidad Foral de Navarra y de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y se proponen líneas de mejora y reforma en dichas regulaciones para el futuro.

Palabras clave: Derecho sucesorio; indignidad; derechos forales; Islas Baleares.

Abstract: This article focuses on the analysis of Act 3/2009, of 27 April, amending the Collection of Civil Law of the Balearic Islands, concerning the grounds of unworthiness to inherit and disinheritance. The legislative amendment follows in the distinct wake of that which took place in 2008 in Catalonia, which is why, this investigation is compared against both, so as to highlight the similarities and differences between same. In conclusion, the regulation on the grounds of unworthiness to inherit under provincial civil law of the Autonomous Community of Navarre and the Basque Autonomous Community is analysed, and areas for improvement and an amendment of those regulations in the future are proposed.

Key words: Laws of Succession; unworthiness; provincial laws; Balearic Islands.

AURKIBIDEA

1. APIRILAREN 27KO 3/2009 LEGEA, BALEAR UHARTEETAKO ZUZENBIDE ZIBILAREN KONPILAZIOA ALDARAZI DUENA, OINORDEKO IZATEKO EZDUINTASUN- ETA JARAUNSGABETZE-ARRAZOIEI DAGOKIENEZ. 1.1. Apirilaren 27ko 3/2009 Legea kokatzea, Balear Uharteetako zuzenbide zibilaren barruan. 1.2. Apirilaren 27ko 3/2009 Legearen nondik norakoak, orokorrean. 1.3. Apirilaren 27ko 3/2009 Legearen xedea: etxeko indarkeriaren aurka borrokatzea. 2. OINORDEKO IZATEKO EZDUINTASUNA. 2.1. Ezduintasunaren kontzeptua, oinarria eta ezaugarriak. 2.2. Ezduintasunaren inguruko lege-arrazoiak. 2.3. Ezduintasuna adierazteko akzioa. 2.4. Ezduintasuna barkatzea: ezduina birgaitzea. 2.5. Ezduintasuna kalifikatzeko unea. 2.6. Ezduintasunaren ondorioak. 3. EZDUINTASUNARI BURUZKO ARAUKETA, EUSKAL HERRIKO FORU-ZUZENBIDEETAN. 3.1. Gaur egungo lege-egoera. 3.2. Euskal Herrian egitekoak. 4. BIBLIOGRAFIA.

1. APIRILAREN 27KO 3/2009 LEGEA, BALEAR UHARTEETAKO ZUZENBIDE ZIBILAREN KONPILAZIOA ALDARAZI DUENA, OINORDEKO IZATEKO EZDUINTASUN- ETA JARAUNSGABETZE-ARRAZOIEI DAGOKIENEZ

1.1. Apirilaren 27ko 3/2009 Legea kokatzea, Balear Uharteetako zuzenbide zibilaren barruan

Apirilaren 27ko 3/2009 Legea, Balear Uharteetako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa aldarazi duena, oinordeko izateko ezduintasun-eta jaraunsgabetze-arrazoiei dagokienez, Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2009. urteko maiatzaren 19an, 121. zenbakiarekin. Orobat argitaratu zen Balear Uharteetako Aldizkari Ofizialean, 2009. urteko maiatzaren 5ean, 66. zenbakiarekin.

Lege berriak, beraz, indarreko konpilazioa aldarazi du. Arean ere, Balear Uharteetako Foru Zuzenbide Zibil Bereziaren Konpilazioa onetsi zuen apirilaren 19ko 5/1961 Legeak (Estatuaren Aldizkari Ofiziala, 95.

zk., apirilaren 21ekoa)¹. Hori eraldatuta geratu zen, ekainaren 28ko 8/1990 Legearen ondorioz (Estatuaren Aldizkari Ofiziala, 86. zk., uztailaren 17koa)², azken horrek Balear Uharteetako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa onetsi zuenean. Eta, ondoren, konpilazioaren testu bategina onetsi zuen irailaren 6ko 79/1990 Legegintzazko Dekretuak (Balear Uharteetako Aldizkari Ofiziala, 120. zk., urriaren 2koa)³.

Balear Uharreetako Konpilazioaren egitura Euskal Autonomia Erkidegoko 3/1992 Legearen antzekoa da, biek ere lurraldez lurraldeko liburuak antolatzen dituztelako. Balear Uharteetan indarrean dagoen Konpilazioak, 1961. urteko konpilazioak bezala, hiru liburu ditu: lehenengoak Mallorcako zuzenbide zibil berezkoa jasotzen du; bigarrenak,

¹ Balear Uharteetako zuzenbide zibil berezkoaren jatorri historikoari buruz, ikus, besteak beste, BADENAS CARPIO, J. M. (2007). *Las donaciones colacionables en el Derecho civil balear*. Tirant lo Blanch. Colección privado, 86. zk. Valentzia, 97. or.: *El Derecho civil balear hunde sus raíces en tres sistemas jurídicos históricos: en el romano-justiniano, en el canónico y en el real (concretado este último, especialmente, aunque con peculiaridades propias, en el Derecho catalán)*. Esto se hace sentir de forma muy notable en los principios generales que informan su sistema sucesorio, tanto en Mallorca y Menorca, como en Ibiza y Formentera.

² Eraldaketa horren norainokoari buruz, TORRES LANA, J. A. (2000). "Panorama del Derecho civil de las Islas Baleares". In *Derechos civiles de España*. Aranzadi.VIII. liburukia. Iruñea. 4746. or.: *La valoración de la reforma no puede, en concordancia con lo dicho, ser positiva, porque la misma persiste en la concepción minimalista sobre el Derecho civil propio que he venido denunciando a lo largo de las páginas precedentes. Desde luego, la reforma hubiera constituido una inmejorable oportunidad para proceder al rescate y revitalización de instituciones no compiladas, compensando de esta manera la poda o amputación de las mismas realizada en la preparación del texto anterior. Pero también se hubiera podido, de acuerdo a lo que repetidamente he expuesto, expandir la regulación a casos y supuestos nuevos, para resolver problemas actuales, suscitados con posterioridad al texto compilado, con tal de que mantuviesen conexión con el sistema y enlazasen y se fundamentasen en los principios informadores de éste.*

³ Jatorrizko testu hori dela eta, konstituzioaurkakotasun-errekurtsoa jarri zuen Espainiako Gobernuak, eta, horren harira, Konstituzio Auzitegiak, 1993. urteko maiatzaren 6an, adierazi zuen 2. artikulua zati bat deuseza zela. Ondorenez, artikulua horrek beste idazkera bat du, urriaren 20ko 7/1993 Legeaz geroztik (Balear Uharteetako Aldizkari Ofiziala, 140. zk., azaroaren 18koa).

Menorcakoa; eta, hirugarrenak, Eivissa eta Formenterakoa. Cabrerari dagokionez, horrek ez du liburu berezirik; izan ere, Cabrera, lurralde-demarkazioari erreparatuta, Palmako udalerriaren barruan kokatzen da, eta, ondorenez, lehenengo liburua aplikatzen da bertan. Gainera, hiru liburu horien aurretik, atariko titulua dago, eta, bukaera aldean, Balear Uharte guztietan aplikatu beharreko arauak jasotzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru-zuzenbide zibilean bizi duguna, beraz, ez da gurea bakarrik:

La división de la Compilación en tres libros: el Primero dedicado a Mallorca, el Segundo a Menorca y el Tercero a Ibiza y Formentera, nos lleva a que no sea el mismo derecho, cuando menos formalmente, el de aplicación en las diferentes islas, por tanto no se puede hablar de unidad en el Derecho civil balear, y no es más que una consecuencia histórica, dado que esta unidad, considerada globalmente, pretendidamente no existió⁴.

Hori guztia aintzakotzat hartuta, MASOT MIQUELek⁵ desegoki ikusten du “Balear Uharteetako oinordetza-zuzenbidea” esamoldea:

Las vicisitudes históricas por las que han pasado cada una de las islas, la mayor o menor influencia del Derecho romano o del Derecho catalán y, sobre todo, la absoluta separación que el hecho insular siempre ha supuesto han determinado diferencias muy apreciables entre el Derecho civil de Mallorca y Menorca, de una parte, y el de Ibiza y Formentera, de otra, existiendo asimismo divergencias entre los dos primeros. Téngase en cuenta que antes del actual siglo no existían líneas regulares de navegación que conectaran las islas entre sí de manera periódica, por lo que la comunicación entre los naturales de las diversas islas era en realidad

⁴ FERRER VANRELL, M. P. (2004). *Lecciones de Derecho civil balear*. Col lección Materials Didàctics, 82. Universitat de les Illes Balears. 3. argitaraldi berrikusia. Palma. 65. or.

⁵ MASOT MIQUEL, M. (2000). “Los principios generales del Derecho sucesorio balear”. In *Derechos civiles de España*. Aranzadi.VIII. liburukia. Iruñea. 4893. or.

nula. Tal vez, precisamente, la mayor distancia entre Mallorca e Ibiza, junto con otros factores políticos y sociales, han determinado esta amplia diversidad entre los ordenamientos sucesorios vigentes en una y otra isla.

Konpilazioaren testu bateginari erreparatuta, horren 42, 80 eta 83.1 artikuluek ezduintasuna aipatzen dute, jakinekotzat emanda, baina arautu gabe.

Lehenengo eta behin, 42. artikulua haxe ezartzen du Mallorcarako: ondorengo senipartea herentziaren heren batekoa izango da, ondorengoak lau edo gutxiago izanez gero, eta herentziaren erdikoa izango da, ondorengoak lau baino gehiago izanez gero; seniparte hori finkatzeko, kontuan hartuko dira seme-alabak eta aurrez hildakoen leinuak, eta zenbatu beharrekoak izango dira jaraunse izendatutako seniparteduna, uko egin duena, jaraunsgabetua, definizioa egiletsi duena eta oinordeko izateko ezduintasun-adierazpena jaso duena. Horri kalterik egin gabe, Espainiako estatuko Kode Zibilaren⁶ 761 eta 857. artikuluek zenbait eskubide aitortzen dizkiete ezduintasun-adierazpena duenaren edo jaraunsgabetuaren ondorengoei, eta eskubideok euren horretan dira.

Eivissarako, berriz, 80. artikulua ezartzen du, zenbait senipartedunen artean banakako senipartea zehazteko, zenbatu beharrekoak direla senipartedun horietatik jaraunse dena, uko egin duena edo finikitoa egiletsi duena, zuzen jaraunsgabetua izan dena eta kausatzailearen oinordeko izateko ezduintasun-adierazpena jaso duena. Horri kalterik egin gabe, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 761 eta 857. artikuluek zenbait eskubide aitortzen dizkiete ezduinaren edo jaraunsgabetuaren seme-alaba edo ondorengoei, eta eskubideok euren horretan dira. Eivissan ere, 83. artikulua ezartzen du banakako senipartea azkendu egiten dela,

⁶ Estatu osoan zuzenbide erkide gisa aplikatzen den horri Espainiako estatuko Kode Zibil deituko zaio idazki honetan, Kataluniako zuzenbide zibil berezkoa jasotzen duenarekin (hau da, Kataluniako Kode Zibilarekin) nahasterik izan ez dadin.

seniparteari huts eta soilik uko eginez gero, zuzen jaraunsgabetua izanez gero eta ezduintasun-adierazpena jasoz gero.

Apirilaren 27ko 3/2009 Legeak ekarri du, ekarri ere, hiru artikuluko horietan aipatuta dagoen ezduintasuna estreinakoz arautzea.

1.2. Apirilaren 27ko 3/2009 Legearen nondik norakoak, orokorrean

Apirilaren 27ko 3/2009 Legeak eragin dituen aldaketa zehatzei so eginez, lege horrek 7bis artikulua gehitu dio indarreko konpilazioari, Mallorcako uharteari dagokionez; eta, Eivissa eta Formenterako uhartei dagokienez, 69bis artikulua. Menorcaren kasuan, ez da artikulurik gehitu; izan ere, indarreko konpilazioaren 65. artikulua dagoeneko ezartzen du, salbuespenak salbuespen, Menorcan Mallorcako xedapen berberak aplikatzen direla.

Apirilaren 27ko 3/2009 Legearen izenburuak ohartarazten du ezduintasuna eta jaraunsgabetzea aldarazten dituela. Ez du ezer esaten, ordea, dohaintzei buruz eta oinordetza-itunei buruz. Alabaina, bi-biotan ere aldaketak ezarri ditu, dohaintza unibertsalak, oinordetza-itunak eta ezkontideen arteko dohaintzak ezeztagarriak izan daitezen, tartean ezduintasun-arrazoiak gertatzen direnean.

Era berean, apirilaren 27ko 3/2009 Legeak aipatzen du konpilazioa aldarazten duela, baina ez du esaten Bikote Egonkorren Legea aldatzen duenik, eta hori ere egiten du, bikoteon araubidea eta ezkonduena parekatzeko. Balear Uharteetako Bikote Egonkorren 18/2001 Legea, abenduaren 19koa, Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 14. zenbakiarekin, 2002. urtarrilaren 16an; orobat, Balear Uharteetako Aldizkari Ofizialean, 156. zenbakiarekin, abenduaren 29an. Hori berori da, hain zuzen ere, autonomia-erkidegoko parlamentuak Balearretan emandako lehen lege zibila da; bigarrena da, beraz, idazki honetan aztergai dena.

Balear Uharteetan, bikotekideek lege-ondorioetarako bikote egonkorra osa dezaten, honako betekizun hauek izan behar dituzte:

1. Elkarrekin bizi behar dira, askatasunez, jendaurrean eta agerian, ezkontideen antzera, euren sexua edozein izanik ere.
2. Gaitasun-betekizunak izan behar dituzte:
 - a) Adin nagusikoak edo adingabe emantzipatuak izatea.
 - b) Ezkonduta ez egotea.
 - c) Elkarren senide ez izatea, zuzeneko lerroan, odol bidez nahiz ezkontza bidez, eta, alboko lerroan, hirugarren graduraino.
 - d) Bikote egonkorrik ez osatzea beste inorekin, inskribatuta edo behar bezala formalizatuta.
3. Balear Uharteetako Bikote Egonkorren Erregistroan inskribatu behar dira.
4. Euretatik batek Balear Uharteetako auzotasun zibila izan behar du.
5. Bi-biek beren-beregi onartu behar dute legearen araubidepean jartzea eta iraunkortasunez ezkonduen moduko bikotea osatzea.

Betekizun horiek guztiak izanez gero, bikotekideetatik bat lehenago hil eta harekin bizi zenak bizirik badirau, bizirik dirauen horrek izango ditu Balear Uharteetako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioak alargunari ematen dizkion eskubide berberak, bai testamentuzko oinordetzan, bai testamenturik gabekoan.

Horiek guztiak dira, beraz, apirilaren 27ko 3/2009 Legeak ekarri dituen aldaketak. Artikulu honen helburu zehatza da ezduintasunaren eremuan ezarritako arautegi berria aztertzea, eta alde batera utziko dira eraldaketak ukitu dituen beste alderdi guztiak.

1.3. Apirilaren 27ko 3/2009 Legearen xedea: etxeko indarkeriaren aurka borrokatzea

Legearen zioen azalpenak dioenez, gizarteak bere eskura dituen neurri guztiak hartu behar ditu, etxeko indarkeriaren aurka erreakzionatzeko eta aurreneurriak hartzeko, horrela, behin betiko desager dadin. Legearen xedea, zehatz-mehatz, hauxe da: norbait kondenatua izan bada etxeko indarkeriarekin zerikusia duen delituaren ondorioz, eragotzi behar da pertsona horrek bere biktimaren ondarea eskuratzea, haren oinordeko gisa.

“Etxeko indarkeria” (“violencia doméstica”) esamoldea erabiltzen da apirilaren 27ko 3/2009 Legean. Egokia da adierazmolde hori, sarritan erabiltzen diren beste batzuekin alderatuta (indarkeria matxista: “violencia machista”; genero-indarkeria: “violencia de género”...). Familia-etxearen barruan tratatu txarrak galaraztea da jomuga, familiako kideak nor diren, zein sexutakoak diren eta ezkontza-loturarik dagoen aintzakotzat hartu gabe. Ildo horretatik, kontua ez da zein sexutakoak burutzen duen bortizkeria (gizonak emakumeari eragiten dion, gizonezkoen artean gerzatzen den, emakumezkoen artean...), nahiz eta praktikan egia izan gizonak eragiten diola min emakumeari kasurik gehienetan. Generoa halakoetan aipatzea ere desegokia da, *Real Academia Española* deiturikoak aspaldi adierazi zuen moduan⁷.

Generoa aipatu zuen, ordea, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, estatu osorako hainbat neurri ezarri zituenean, genero

⁷ REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (2004). *Informe de la Real Academia Española sobre la expresión violencia de género*. In <http://www.uv.es/ivorra/documentos/Genero.htm>:... con lo que la denominación completa más ajustada sería LEY INTEGRAL CONTRA LA VIOLENCIA DOMÉSTICA O POR RAZÓN DE SEXO. En la misma línea, debiera en adelante sustituirse la expresión “impacto por razón de género” por la de “impacto por razón de sexo”, en línea con lo que la Constitución establece en su Artículo 14 al hablar de la no discriminación “por razón de nacimiento, raza, sexo...”

indarkeriaren aurkako babes osoa dela medio. Neurriok orotarikoak izan ziren eta hainbat esparru barruratu zituzten, hala nola, hezkuntza, komunikabideak, osasuna, Gizarte Segurantza, prozesua... Aipatu legeak ez zuen barruratu, ordea, inolako neurririk, zuzenbide zibilaren arloan, eta, beraz, oinordetza-zuzenbidearen arloan ere ez.

Zuzenbide erkidea alde batera utzi eta autonomia-erkidegoetako berezko araudiei erreparatuta, Katalunian, etxeko indarkeriaren aurka, zenbait neurri ezarri ziren bertako oinordetza-zuzenbidearen esparruan, uztailearen 10eko 10/2008 Legearen bitartez. Lege hori Kataluniako Generalitatearen Egunkari Ofizialean argitaratu zen, 5175. zenbakiarekin, 2008. urteko uztailearen 17an, eta Estatuaren Aldizkari Ofizialean, 190. zenbakiarekin, 2008. urteko abuztuaren 7an. Legeak, oro har, Kataluniako Kode Zibilaren laugarren liburua aldarazi zuen (hau da, abenduaren 30eko 49/1991 Legea aldarazi zuen), eta liburu horrek barneratzen du, hain justu ere, heriotzaren ondoriozko oinordetza-kodea Kataluniako zuzenbide zibilean. Indarrean jarri da 2009. urtarrilaren 1ean, 10/2008 Legearen azken xedapenetatik laugarrenak ezarritakoaren arabera.

Beste autonomia-erkidegoen berezko araudiek ez dute eraldaketarik egin oinordetza-zuzenbidearen arloan etxeko indarkeriaren aurka neurriak hartzeko, eta, zehatzago, neurri horien artean ezduintasuna arautzeko.

2. OINORDEKO IZATEKO EZDUINTASUNA

2.1. Ezduintasunaren kontzeptua, oinarria eta ezaugarriak

Kontzeptua. RIVAS MARTÍNEZek⁸, ezduintasunaren ibilbide historikoa laburtzean, aipatzen du zuzenbide erromatarrean argi zegoela,

⁸ RIVAS MARTÍNEZ, J. J. (2009). *Derecho de sucesiones, común y foral*. I. liburukia. Dykinson. 4. argitaraldia. Madril. 991 eta 992. orr. Ibilbide historikoaren inguruan, argibide

oinordeko ezduinaren inguruan, *potest capere sed non potest retinere*. Hau da, ezduinak herentzia eskuratzen zuen, baina gero kendu egiten zitzaion, hildakoaren aurka burututako egintzen zigor modura, eta kendutakoa Ogasunari helarazten zitzaion. *Las Partidas* izeneko testuan ere, hala arautu zen ezduintasuna; desberdintasun moduan, ezduinari kendutako ondasunak, Ogasunari barik, erregeri helarazten zitzaizkion. Gauzak aldatu egin ziren, ordea, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 1851. urteko Proiektuan, horrek ezarri baitzuen ezduinak ezin zuela testamentu bidez eskuratu. Orobat egin zuen, ondoren, Espainiako estatuko 1889. urteko Kode Zibilak ere, ezduintasuna kalifikatu zuelako oinordeko izateko ezgaitasun-kasu moduan.

Ibilbide historikoaren ildotik, autoreek eztabaidatu dute ezduintasuna oinordeko izateko ezgaitasun-kasua den ala ez. Eztabaida horren antzekoa izango litzateke, konparazio baterako, gure buruari galdetzea harakoa deuseztasun-kasua edo deuseztagarritasun-kasua den. Edo, SANCHO REBULLIDAREN hitzetan,

... la discusión doctrinal sobre si la incapacidad y la indignidad sucesorias tienen rasgos comunes suficientes para considerarlas género y especie, o son dos géneros distintos⁹.

gehiago behar izanez gero, BEATO DEL PALACIO, E. (2006). "La indignidad para suceder: causas de desheredación". In *Raíces de lo ilícito y razones de licitud. Fundamentos de conocimiento jurídico*. Dykinson. Madril, 65. orrialdetik 72.erakoetan, eta, batez ere, MENA-BERNAL ESCOBAR, M. J. (1994; maiatza-ekaina). "Sentido histórico de la indignidad para suceder". *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*. 622. zk. 1071. orrialdetik 1147.erakoak. Azken egile horrek bere doktore-tesia egin zuen oinordeko izateko ezduintasunari buruz, eta, aipatu artikulu zehatz horretan, ezduinasunaren historiaz gain, zuzenbide konparatua ere lantzen du (Frantzia, Italia, Portugal...).

⁹ SANCHO REBULLIDA (1957). "Sobre la naturaleza y encuadre sistemático de la indignidad para suceder". *Temis*. 1. zk. 153. or.

Oinordeko izateko ezgaitasun-kasua izanez gero, oinordeko ezduinari ez zaio herentziara deituko, ezta ezer eskainiko ere (hau da, ez du bokaziorik ez delaziorik izango). Hori defendatzen duten autoreen iritziz, ezduinak ez du oinordeko izateko gaitasunik *ex lege*, nahiz eta ondorio horietarako pertsona izan eta kausatzailea hiltzean bizirik egon, hau da, nahiz eta oinordeko izateko gaitasunaren betekizunak izan. Horrela ulertuta ere, oinordeko izateko ezgaitasun-kasu hau erlatiboa da, kausatzaileari dagokionez (kausatzaile hori pertsona zehatza delako; horren arauak esku-emaileak direnez gero, birgaikuntza gerta daitekeelako; eta beharrezkoa delako interesdunek ezduintasuna adierazteko akzioa egikaritzea); baina ezgaitasun-kasu hau erabatekoa da, ondorioei dagokienez (kausatzailearen ondare osoa galtzen da, senipartea barne), oinordetza-motei dagokienez (testamentuzkoa, abintestatoa eta kontratuzkoa barruratzen ditu) eta oinordeko-motei dagokienez (eragina du oinordeko guztien gainean, jaraunsleak izan nahiz legatu-hartzaileak izan). Joera honen aldeko arrazoi gisa Espainiako estatuko Kode Zibilaren hitzez-hitzez kotasuna aipa daiteke, “oinordeko izateko ezgaitasuna (“incapacidad para suceder”) esamoldea erabiltzen baitu lege-testu horrek (adibidez, 756 eta 852. artikuluetan; orobat, 760, 761 eta 762. artikuluetan). Beste arrazoi bat kokaera sistematikoa izan daiteke, ezduintasuna araututa dagoelako honako izenburu hau duen atalean: “testamentu bidez eta testamenturik gabe oinordeko izateko gaitasuna” (“De la capacidad para suceder por testamento o sin él”).

Ezduintasuna ez bada, ordea, oinordeko izateko ezgaitasun-kasua, orduan oinordeko ezduin horri herentziara deitu eta hori eskainiko zaio, ezduinak herentzia onar dezake, baina gero ezin izango dio eskuratu-takoari eutsi, kendu egingo zaiolako, baldin eta legitimazioa dutenek ezduintasun hori adierazteko akzioa egikaritzen badute eta akzioak aurrera egiten badu. Hori defendatzen duten autoreen iritziz, ezduina pertsona da eta kausatzailea hiltzeko unean bizirik dago; beraz, oinordeko izateko

gaitasuna du, eta ezin da esan oinordeko izateko ezgaitasuna duenik. Ildo horretatik, ez da egokia esatea, 756. artikulua esaten duen bezala, “oinordeko izateko ezgaitasuna, ezduintasunaren ondorioz”; nahikoa izan behar da esatea “oinordeko izateko ezduintasuna”. “Ezgaitasuna” baino, “gaikuntzarik eza” (“inhabilidad”) aipatu beharko litzateke, kausatzaileak ezduinari “birgaikuntza” (“rehabilitación”) aitortu ahal diolako.

Eztabaidak eztabaida, ezduintasuna oinordetza-zuzenbidearen arloko zehapen edo zigor zibil eta pribatua da; oinordeko izan beharko lukeen horrek legean beren-beregi ezarritako harreman gaitzesgarriak izan ditu kausatzailearekin, eta, kausatzaile ofendituak barkamena eman ezik, ezduina izango da eta ezduintasun horren ondorioak jasan beharko ditu. Egia da ezduintasun-arrazoietatik batzuk, aldi berean, delitu eta falta gisa tipifikatuta daudela Zigor Kodean, baina horrek ez du esan nahi ezduintasuna zehapen penala denik. Are gehiago, egitateren bat ezduintasun-kasua izan daiteke, zehapen penalik ekarri ez arren; beste egitate bat, aldi berean, ezduintasun-kasua eta delitua edo falta izan daiteke aldi berean; eta beste egitateren batek, delitu edo falta izanik ere, ez du ezduintasunik ekarriko berarekin. Hala ere, egia da kasu batzuetan ezinbestekoa dela aurretiaz epai irmoa ematea, ezduintasuna gerta dadin. Ezduintasun-kasuak, beraz, zuzenbide zibileko portaera ez-zilegiak dira, eta, beraz, ezduintasuna zehapen zibil pribatua da.

Oinarria. Autoreek, ezduintasunaren oinarria azaldu nahi dutenean, bi joera bistaritzen dituzte.

Batzuek joera subjektibista edo boluntaristari eusten diote, kausatzailearen ustezko borondateari erreparatuta. Horren arabera, kausatzaileak jakinez gero ezduinak zer egin duen, hori oinordetzatik baztertuko luke. Hortaz, autore horien ustez, kausatzailearen borondateari buruzko *iuris tantum* presuntzioan oinarritzen dira ezduintasun-arrazoiak: kontrakoa

frogatzen ez den bitartean, uste izango da kausatzaileak ezduina oinordetzatik baztertuko zuela, ezduintasun-arrazoiaren berri izanez gero. *Iuris tantum* presuntzio hori ezerezean geratzen da, kausatzaileak, hala nahita, ezduina birgaitzen duenean.

Bestelako joera objektiboa da. Horrek azpimarra jartzen du ezduinaren jokabidean bertan, ez, ordea, kausatzailearen ustezko borondatean. Legea bera da, ezduinak burututako egintza ez-zilegia ikusita, hura zigortzen duena, kausatzaileak zer nahi izango zuen kontuan hartu gabe. Horrek azaltzen du, esate baterako, ezduintasuna aplikatzea, kausatzailea hiltzen bada gertatutako ezduintasun-arrazoiaren berririk izan barik, edota horren berri izatea ezinezkoa bada. Horrek azaltzen du, orobat, borondatek kanpoko hilketa ez izatea ezduintasun-arrazoietatik bat; kausatzaileak, ordea, bere borondatez balitz, bai baztertuko luke ziur asko kasu horretan ere oinordekoa oinordetzatik. Joera objektibista honen arabera, legea bera da, arrazoi etikoak eta moralak aintzat hartuta, ezduinaren jokabideari zehapen zibila jartzen diona, kausatzailearen borondateari men egin gabe.

Ezaugarriak. Ezduintasunak honako ezaugarri hauek ditu:

—Ezduintasuna oinordetza-mota guztietan gerta daiteke. Egia da Espainiako estatuko Kode Zibilak “testamentugile” hitza erabiltzen duela zenbait kasutan eta horrek nahastea ekarri duela, uler daitekeelako testamentuzko oinordetzan bakarrik aplikatzen dela ezduintasuna. Zernahi gisaz, autoreek ez dute uste ezduintasunaren esparrua oinordetza-mota horretara mugatu behar denik. Aitzitik, oinordetza-mota guztiak hartu behar ditu bere barruan, eta, hori baieztatzeko, nahikoa da lege-testu berberaren, hau da, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 914. artikulua ezartzen duena gogoratzea: testamentuzko oinordeko izateko ezgaitasunari buruz xedaturikoa aplika dakioke, orobat, testamenturik gabeko oinordetzari ere. Hari beretik, ez da beharrezkoa kausatzaileak beren-

beregi ezduintasun-arrazoia jasoaraztea testamentuan. Are gehiago, batzuetan ezinezkoa ere bada, testamentugileak ez duelako horren berririk edota bera hil eta gero gertatu delako.

—Ezduintasuna kausatzaile zehatz bati begira bakarrik gertatzen da. Izan ere, pertsona jakin batek oinordeko izateko gaitasuna du (hau da, ez du erabateko ezgaitasunik), baina, kausatzailearekin harreman gaitzesgarriak izan dituenek gero, kausatzaile zehatz horren herentzia eskuratzeko aukera galtzen du. Kontuan hartu behar da harreman gaitzesgarri horiek legean beren-beregi ezarritakoak izan behar direla. Egin-eginean ere, ezduintasunaren inguruko lege-arrazoiak egintza ez-zilegiak dira, eta, arrazoi guztietan, eginbehar juridiko bereziak urratzen dira. Legegileak berak ezarri du zein diren halakoak, eta kausatzaileak ezin ditu arrazoiok zabaldu edo murriztu, ezta berriak asmatu ere. Zigor-zuzenbideko printzipioa hona ekarrita, *nulla indignitas, sine lege*. Ezduintasun-arrazoiak, beraz, lege-aginduz mugaturik daude; ezin ditu kausatzaileak bere gura-rietara moldatu, eta, orobat, ezin dituzte epaileek ezarri, interpretazio zabala eginez. Egia da, hala ere, lege-testuek ez dutela argiro-argiro esaten ezduintasun-arrazoiak *numerus clausus* direnik (jaraungabetzearen inguruan, ordea, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 848. artikulua horixe egiten du).

—Ezduintasunaren erregelak ez dira aginduzkoak, esku-emaileak baino. Horrek esan nahi du kausatzaileak ezduintasun hori barka deza-keela, eta, beraz, ezduinari birgaikuntza gerta daitekeela. Ezduintasuna, orduan, zigor edo zehapen zibila da, baina ez dihardu *ius cogens* modura.

—Oinordetza-zuzenbidearen arloan, oinordeko izateko gaitasuna da erregela orokorra; ezgaitasun-kasuak, berriz, salbuespenak dira, eta, salbuespen diren heinean, esangura hertsian interpretatu behar dira. Horixe egin behar da, hain justu ere, ezduintasunarekin. Hori dela eta, dudazkoa bada ezduintasun-arrazoia egiazkoa den ala ez, edo oinordekoari

aplikatzeko modukoa den, orduan ezduinaren mesederako argitu behar dira zalantza hori.

... puesto que... nos hallamos ante normas sancionatorias (bien que de naturaleza civil, no penal), a la hora de aplicarlas debe procederse con el criterio interpretativo restrictivo (odiosa sunt restringenda) que es propio de las normas (también civiles) sancionatorias o restrictivas de derechos. No cabe, pues, la interpretación extensiva de las causas legales tipificadas... y, por ello... siempre conforme al criterio hermanéutico tradicionalmente aplicable a las normas de esa naturaleza (in dubio pro reo), frente a la duda racional de si determinada conducta encaja o no en el tipo de una causa legal de indignidad... debe responderse con el criterio (negativo) más favorable al presunto indigno...¹⁰

Arazoi berbera aplikatuta, baztertuta dago, berebat, analogiaren erabilera. Espainiako estatuko Kode Zibilaren 4.2 artikuluan ezarritakoari helduta, zigor-legeak, salbuespenekoak eta aldi baterakoak ez dira aplikatuko, eurok beren-beregi jasotako kasuetan eta uneetan baino. Ezduintasunari buruzko erregelak salbuespeneko lege zibilak direnez gero, ez dago tokirik analogiarentzat.

2.2. Ezduintasunaren inguruko lege-arrazoiak

Apirilaren 27ko 3/2009 Legeak, Balear Uharteeko Konpilazioan, 7bis eta 69bis artikulua berriak txertatu ditu, eta, bi horien bitartez, estreinakoz ezduintasun-arrazoiak ezarri ditu. Bi artikuluek, ezduintasun-arrazoiei dagokienez, testu bera dute: bata, Mallorcan aplikatzekoa (eta, aipatu konpilazioaren 65. artikulua dela eta, Menorcan ere aplikatzekoa) eta, bestea, Eivissa eta Formenteran aplikatzekoa.

¹⁰ JORDANO FRAGA, F. (2004). *Indignidad sucesoria y desheredación (algunos aspectos conflictivos de su recíproca interrelación)*. Colección Estudios de Derecho Privado. 40. zk. Comares. Granada, 7. or.

Jarraian, ezduintasun-arrazoi horiek aztertuko dira banan-banan, betiere beste bi lege-testutan jasotako arauekin alderatuta, hain justu ere, Espainiako estatuko Kode Zibilean eta Kataluniako zuzenbide zibil berezkoan jasotako arauekin alderatuta.

Balear Uharteetan, ezduintasun-arrazoien artean lehendabizikoa hauxe da:

a) Epaiketa penalean, eta epai irmoaren ondorioz, kondenatuak izan direnak, kausatzailearen, horren ezkontidearen, horren bikotekide egonkorren edo izatezko bikotekidearen, edo haren ondorengo nahiz aurrekoetatik edozeinen bizitzaren aurka atentatzeagatik, edo horietatik bati lesio astunak eragiteagatik.

Balear Uharteetako lehendabiziko ezduintasun-arrazoi honek gogora dakar Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa:

Testamentugilearen, horren ezkontidearen, ondorengoaren edo aurrekoaren bizitzaren aurka atentatzeagatik, epaiketan kondenatua izan dena. Ofentsagilea nahitaezko jaraunslea baldin bada, seniparte-eskubidea galduko du.

Egia esateko, Balear Uharteetako 3/2009 Legeak hobetu egin du Espainiako estatuko Kode Zibileko ezduintasun-arrazoien idazkera, hainbat puntutan. Azpimarratzekoak dira, besteak beste, jarraikoak:

1. Argi utzi du epaiketa penala izan behar dela, eta, gainera, epaiketa horretan epai irmoa eman behar dela.

2. Ezkontidearen aipamen hutsa gairatu du, eta horrekin parekatu ditu, bai bikotekide egonkorra (hau da, Bikote Egonkorren Legea aplikagarri duena), bai izatezko bikotekidea (hots, maitasun-harremanen ondorioz egitez kausatzailearekin bizi dena).

3. “Testamentugile” hitza erabili beharrean, “kausatzaile” hitza erabiltzen du. Horrela, ez dago dudarik, ezduintasuna testamentuzko oinordetzaz besteko oinordetza-motatan aplikatzeko.

4. Ez du gaineratzen ofentsagilea seniparteduna denean, horrek seni- parte-eskubidea¹¹ ere galtzen duenik. Izan ere, senipartea galtzea, orokor- rean, ezduintasunaren ondorioetatik bat da, eta ez dagokio arrazoi honi bakarrik, guztiei baizik. Bertan bakarrik aipamena egitea nahasgarria baino ez da:

... la aceptación por mi parte de la opinión doctrinal asostenida por la abru- madora mayoría de nuestros autores, también de los más autorizadosæ, que es tam- bién el criterio de la jurisprudencia del Tribunal Supremo, de que la indignidad sucesoria, por sí misma, sin necesidad de justa desheredación, y cualquiera que sea su causa (esto es, no sólo en el supuesto del art. 756-2 Cc., para el que la ley establece expresamente ese efecto), priva al indigno que sea legitimario del causante ofendido, además de cualquier otro derecho sucesorio en la sucesión de dicho cau- sante, también de su derecho individual a la legítima en esa misma sucesión¹².

5. Bizitzaren aurkako atentatuaz gain, lesio larriak eragitea aipatzen du. Horrela, ezduintasun-arrazoi honen aplikazio-esparrua zabaldu egiten da. Espainiako esatuko Kode Zibilaren sisteman, osotasun fisikoaren aurkako atentatua ez da ezduintasun-arrazoia; Balear Uharteetan, ordea, bai. Zin- zinez, horrela saihestu daiteke, neurri batean behintzat, etxeko indarkeria erabili duena oinordeko izatea, tratu txarrak jasan dituenaren oinordetzan.

¹¹ Mallorcan eta Menorcan, senipartedunak dira, lehenengo eta behin, seme-alabak eta ondorengoak; horien ezean, gurasoak; eta, aurreko biek nahiz halakorik egon gabe, alarguna. Ondorengo senipartea, lehen esan bezala, herentziaren heren batekoa da, seme-alabak lau edo gutxiago direnean; lau baino gehiago direnean, berriz, herentziaren erdikoa da. Gurasoen senipartea herentziaren laurdena da. Alargunari dagokionez, alargu- nak herentziaren erdiaren gaineko gozamen-eskubidea du, ondorengoekin batera; bi herenen gainekoa, aurrekoekin batera; eta, bestelako kasuetan, gozamen unibertsala (Konpilazioaren 42. artikulua eta ondorengoak). Eivissan, bestalde, alarguna ez da seni- parteduna.

¹² JORDANO FRAGA, F. (2004). "Algunos aspectos del régimen de la indignidad suce- soria en relación a la legítima dentro del Código Civil". In *Libro homenaje al Profesor Manuel Albaladejo García*. I. liburukia. Murtziako Unibertsitatea. 2553 eta 2554. orr.

Nolanahi den ere, hobetzekoa da hurrengo puntua: ezduintasun-arrazoi honetan, badirudi epai kondenatzaile irmoa ezarri behar dela doloaren ondorioz (nahigabekoa eta okerraren ondoriozkoa kanpoan utzita) eta egile gisa horretan parte hartzeagatik (estaltzailea kanpoan utzita); ez da beharrezkoa, bestalde, atentatua gauzatzea, ahalegin hutsarekin nahikoa baita. Xehetasun horiek guztiak jasotzeko modukoak ziren, baina ez da hori egin. Katalunian, berriz, zehaztapen horiek nolabait islatu dira bertako Kode Zibilaren 412-3.a) xedapenean, uztailearen 10eko 10/2008 Legearen bitartez. Izan ere, harrezkeroko testua hauxe da:

a) Epaiketa penalean emandako epai irmoan kondenatua izan dena, kausatzailea, horren ezkontidea, kausatzaileak norekin batasun iraunkorra osatu eta horixe, edota kausatzailearen ondorengo nahiz aurrekoetatik edozein doloz hiltzeagatik edo horretarako ahaleginak egiteagatik.

Balear Uharteetan, ezduintasun-arrazoiaren artean bigarrena hauxe da:

b) Epaiketa penalean, eta epai irmoaren ondorioz, kondenatuak izan direnak, askatasunaren, osotasun moralaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituak egiteagatik, baldin eta ofenditua bada kausatzailea bera, horren ezkontidea, horren bikotekide egonkorra edo izatezko bikotekidea, edo haren ondorengo nahiz aurrekoetatik edozein.

Ezduintasun-arrazoi honek ez du parekorik ez antzekorik Espainiako estatuko Kode Zibilean. Etxeko indarkeriaren aurkako borroka horretan du bere uztarrria, eta, ildo horretatik, bat dator Kataluniako Kode Zibilaren 412-3.b) arauarekin:

b) Epaiketa penalean emandako epai irmoan kondenatua izan dena, lesio astunen delituak, askatasunaren kontrakoak, tortura-delituak, osotasun moralaren aurkakoak edota sexu-askatasunaren nahiz -osotasunaren aurkakoak doloz egiteagatik, baldin eta laidotua izan bada kausatzailea bera, horren ezkontidea, kausatzaileak norekin batasun iraunkorra osatu eta horixe, edo kausatzailearen ondorengo nahiz aurrekoetatik edozein.

Bistan denez, badira bi lege-testu horien artean zenbait desberdintasun:

1. Kataluniako testuak b) ataleko ezduintasun-arrazoi honetan aipatzen ditu lesio astunak; Balear Uharteetako testuak, aldiz, a) ataleko ezduintasun-arrazoiarekin batera aipatzen ditu lesio astunak, alegia, bizitzaren aurkako atentatuarekin batera.

2. Kataluniako testuak, b) atal honetan, Balear Uharteetako testuak baino delitu gehiago aipatzen ditu, tortura-delituak eta sexu-osotasunaren aurkakoak ez baitira Balear Uharteetako testuan ageri.

3. Kataluniako testuaren arabera, beharrezkoa da bertan zerrendatutako delitu guztiak doloz eragitea; Balear Uharteetako testuak, berriz, ez du horren inguruan inolako aipamenik egiten.

4. Balear Uharteetan, argi dago bikotekide guztiak, hau da, ezkonduak, bikote egonkorak eta izatezko bikote hutsak, pareko direla ezduintasun-arrazoien ondorioetako. Katalunian, berriz, bikoteek “batasun iraunkorak” eratu behar dituzte; ondorenez, badirudi ezduintasun-arrazoien aplikazio-esparruan sartzeko, Kataluniako bikoteek izan behar dituztela, izan ere, uztailaren 15eko 10/1998 Legearen betekizunak (Estatuaren Aldizkari Ofiziala, 198. zk., 1998. urteko abuztuaren 19koa; Kataluniako Generalitatearen Egunkari Ofiziala, 2687. zk., 1998. urteko uztailaren 23koa). Izatezko bikote hutsak izanez gero, ordea, ez du ematen ezduintasun-arrazoia aplikagarria denik, eta hori, neurri batean behintzat, kiritikatzeko modukoa da.

Balear Uharteetan, ezduintasun-arrazoien artean hirugarrena eta lauugarrena hauexek dira:

c) Epai irmoaren ondorioz, guraso-ahala, tutoretza, zaintza edo familia-harrera galdu dutenak, eurei egozteko moduko arrazoia dela medio, eta, betiere, oinordetzaren kausatzaile den adingabeari edo desgaiari dagokionez.

d) Epai irmoaren ondorioz, zigor larriaren kondena izan dutenak, laidotuaren oinordetzan familia-eginbeharrak urratzeagatik.

Ezduintasun-arrazoi bi horiek hari beretik datoz, bi-bion jatorria baita familia-eginbeharrak urratzea (besteak beste, ezkontza-prozesuetan ezarritako prestazio ekonomikoak ez ordaintzea, zaintza-eginbeharrak ez betetzea, adingabeak ostea, familia bertan behera uztea...), eta, oro har, babes-erakundeek eratorzen dituzten eginbeharrak haustea. Bi arrazoi horietan nabarmetzen da, nabarmendu ere, etxeko indarkeriaren aurkako borroka. Hori dela eta, batera aztertuko dira.

Esangura horretan, Balear Uharteetako ezduintasun-arrazoi horiek gogora dakartzate Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 1 eta 7. kasuak. Jarraian, bi horien inguruko iruzkinak jasoko dira, eta, behin hori egin da, Balear Uharteetako testuarekin erkatuko dira.

Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 1. zenbakiak hauxe du ezarrita:

*Seme-alabak bertan behera utzi, prostituzioan jarri edo gaizpideratzen dituzten gurasoak*¹³.

Egia esan, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756.1 atalean aipatutako ekintzak guraso-ahalak galtzeko arrazoiak dira, guztietan ere guraso-ahalak dakartzan eginbeharretatik bat urratzen delako, hain zuzen ere, Kode Zibilaren 154.1 artikuluan jasotakoa: seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabok heztea, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa ematea.

¹³ Urriaren 15eko 11/1990 Legea onetsi arte, idaz-zati honen aurreko idazkerak zeresan handiagoa ematen zue: "semeak bertan behera uzten dituzten gurasoak, edo alabak prostituzioan jarri nahiz haien ahalkearen aurka atentatzen dituztenak". Bertsio horren inguruan, ikus HERNÁNDEZ-GIL, F (1965; otsaila). "La indignidad por incumplimiento de los deberes legales". *RDP* 49. zk. 109. orrialdetik 121. erakoak..

Kontuan hartu beharrekoa da, gainera, arrazoi hau, hitzez hitz hartuta behintzat, gurasoei bakarrik aplikatzen zaiela, ez, ordea, bestelako aurrekoei (aitona-amonei, birraitona-birramonei...), eta, betiere, harreman gaitzesgarriak jasan dituzten seme-alabei begira bakarrik (ez, ordea, bestelako seme-alabei begira). Hitzez-hitzezkotasuna zorrotz hartuta, eta ezduintasun-arrazoa esangurarik hertsienean interpretatuta, aitonak/amonak prostituzioan jarri badu bere semea/alaba, ez da ezduina izango seme/alaba horren seme/alabaren oinordetzan. Badirudi, hitzez-hitzezkotasunak nolabaiteko malgutasuna behar duela, halakoak gerta ez daitezten. Bestalde, 756.1 atalean “gurasoak” pluralaz aipatzen badira ere, autore guztiek aho batez onartu dute aita edo ama bera bakarrik izan daitekeela ezduintasunaren eragile.

Ezduintasuna eragiten duten ekintzak banan-banan hartuta, horiek aipatzeko orduan, hiru esamolde hauek erabiltzen ditu legegileak: bertan behera uztea, prostituzioan jartzea eta gaizpideratzea. Jarraian hiru horiek banan-banan aztertuko dira.

Bertan behera uztea ez da familia-egoitza uztea bakarrik; horrez gain, bertan behera uzteak bere barruan hartzen du gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan ezinbesteko diren laguntzak ukatzea ere. Ildo beretik, bertan behera uztea ez dator bat bete-beteen Zigor Kodean delitu gisa tipifikatutakoarekin, alegia, familia bertan behera uztearekin. Oro har, guraso-ahalak dakartzan eginbeharrak haustea da bertan behera uztea, eta, horrela ulertuta, bere baitara biltzen ditu prostituzioan jartzea eta gaizpideratzea. Hori gorabehera, prostituzioan jartzea eta gaizpideratzea bereizita azal daitezke:

Con respecto a la prostitución de los hijos, por esto hay que entender “entregar a comercio carnal impuesto o propiciado por el padre o madre”, e implica tanto la realización por los propios padres como la de un tercero con la complacencia,

incitación o facilitación de los padres, y sin que importe que el hijo sea mayor o menor de edad, o que sea independiente o no de él.

[...]

Con respecto a la corrupción de los hijos... aunque hemos de decir que si bien la prostitución es una forma de corrupción de los hijos, es indudable que no es ésta la única forma de corromperlos. En este sentido, parece que también corrompe al hijo la conducta del padre o madre que realiza con ellos o les obliga a realizar por terceros actos deshonestos distintos a la prostitución, pero de carácter libidinoso; o también la conducta del progenitor que los inicia y acostumbra al consumo de drogas o alcohol. De todo ello se deduce que la corrupción es un concepto más amplio que el de prostitución y que no debe quedar ceñido exclusivamente al ámbito de conductas que, de algún modo tengan por objeto acciones o comportamientos sexuales reprobables¹⁴.

Iruzkin labur horiek kontuan hartuta, komeni da Espainiako estatuko Kode Zibilaren paragrafo hori berridaztea edota horren idazkera gaurkotzea, besteak beste, banantzeko arrazoiak, Zigor Kodean jasotako delituak eta faltak, guraso-ahalaria dagozkion eginbeharrak eta beste hainbat gai eraldatu eta eguneratu diren neurrian.

Hori dela eta, Balear Uharteetako legea puntu zehatz honetan Espainiako estatuko Kode Zibiletik alden du denean, zuzen eta artez jokatu duela esan beharra dago.

Bestalde, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 7. zenbakiak hauxe du ezarrita:

Desgaitasuna duen norbaiten oinordetza izanez gero, herentziarako eskubidea

¹⁴ BEATO DEL PALACIO, E. (2006). "La indignidad para suceder: causas de desheredación". In *Raíces de lo ilícito y razones de licitud. Fundamentos de conocimiento jurídico*. Dykinson. Madril. 79 eta 80. orr.

izan eta hari beharrezkoak diren laguntzak eman ez dizkietenak; beharrezko laguntzatzat hartuko dira Kode Zibilaren 142 eta 146. artikuluetan araututakoak.

Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluari idatz-zati hori gaineratu zion azaroaren 18ko 41/2003 Legeak. Lege horren xedea da desgaitasuna duten pertsonak, eta, zehatzago, pertsona horien ondarea babestea (gogoratu behar da 2003. urtea desgaitasuna duten gizakien urte europarra izan dela). Lege horren ondorioetarako, desgaitasuna izango dute: a) %33 edo hortik gorako elbarritasun psikikoa dutenek; eta b) %65 edo hortik gorako elbarritasun fisikoa edo zentzumenekoa dutenek. Elbarritasun-gradua egiaztatzeko, ebazpen judizial irmora jo beharko da, edo, bestela, erregelamendu bidez luzatutako ziurtagirira. Bada, desgaitasuna dutenetatik norbait kausatzailea bada, eta, bizirik zegoen bitartean, norbaitek hari beharrezko laguntzak eman ez badizkio, hori ezduina izango da desgaitasuna duenaren oinordetzan.

Beharrezko laguntzak zein diren ulertzeko, mantenuaren arloko arauetara jo behar da. Horren arabera, mantenu gisa hartzen da elikagaiak, gelak, arropak eta osasun-laguntzak izateko behar den guztia. Halaber, mantenu-hartzailea adingabea den bitartean, mantenuak bere barruan hartzen ditu mantenu-hartzaile horren hezkuntza eta haziera; mantenu-hartzailea adin nagusikoa izanik ere, horren heziketa oraindik ez bada bukatu berari egotzi ezin zaion arrazoiaren ondorioz, heziketa horren gastuak ere mantenuaren barruan sartzen dira. Mantenuaren barruan sartuko dira, bestalde, haurdunaldiak eta erditzeak eragindako gastuak, gastu horiek ez badaude beste modu batez estalita. Hari bertsutik, mantenuaren zenbatekoa izan behar da, mantenua nork eman eta horrek dituen ondasun edo baliabideen arabera, eta mantenu hori nork jaso eta horrek dituen beharizanen arabera.

Balear Uharteetako testuak ere ez ditu ahanzi desgaitasuna dutenak, eta, horiei babesa emateko asmoarekin, ezduintasuna arautu du. Alabaina,

ezduintasun horren baldintza gisa ez du ezarri beharrezko laguntzak ukatzea, baizik eta babes-erakundeetatik edozein (guraso-ahala, tutoretza, zaintza edo familia-harrera) galdu izana.

Nabari denez, Balear Uharteetako testu berria urrundu egin da Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 1 eta 7. zenbaki-etatik, eta, hori egitean, egoki jokatu duela aitortu behar da, gaur egungo gizarte-errealitateari hobeto erantzuten diolako.

Erkaketa Kataluniako Kode Zibilaren 412-3.e) eta f) letrekin eginez gero, nolabaiteko antzekotasunak aurki daitezke, bai eta funtsezko desberdintasunak ere. Kataluniako testu bi horiek jarraikoak dira:

e) Epaiketa penalean epai irmoan kondenatua izan dena, familia-eskubide eta -eginbeharren aurkako delitua egiteagatik, betiere laidotuaren oinordetzan edota laidotuaren lege-ordez kariaren oinordetzan.

f) Gurasoak, baldin eta ahala eten edo kendu bazaie, oinordetzaren kausatzaile den seme edo alabari begira, euren egotzi beharreko arrazoien ondorioz.

Nabari denez, bai Kataluniako testuak, bai Balear Uharteetakoak, ezduintasun-arrazoietatik bat arautzen dute arlo penaletik, eta bestea, eremu zibilean.

Arlo penaleko ezduintasun-arrazoiei dagokienez, Balear Uharteetan, beharrezkoa da epai irmoak zigor larrira kondenatzea, laidotuaren oinordetzan familia-eginbeharrak hausteagatik. Katalunian, berriz, ez zaio zigorrari erreparatzen; aitzitik, kondena izan behar da familia-eskubideen eta -eginbeharren aurkako delitua egiteagatik. Alabaina, Katalunian hori gerta daiteke, dela laidotuaren oinordetzan (Balear Uharteetan bezala), dela laidotuaren lege-ordez kariaren oinordetzan (azken hori ez da Balear Uharteetarako ezarri).

Eremu zibileko ezduintasun-arrazoiei dagokienez, Balear Uharteetan ezduintasun-arrazoien funtsa da babes-erakundeetatik edozein (guraso-

ahala, tutoretza, zaintza edo familia-harrera) galdu izana. Katalunian, ostera, ezduintasun-arrazoia gurasoei bakarrik aplikatzen zaie, guraso-ahala eten edo kendu zaienean, euren seme edo alaba kausatzaileari begira. Bai Balear Uharteetan, bai Katalunian, beharrezkoa da kasuan kasuko arrazoia ustezko ezduinari egozteko modukoa izatea. Balear Uharteetako testuak epai irmoaren beharra azpimarratzen du; Kataluniakoak, berriz, isildu egiten du eskakizun hori. Balear Uharteetako testuak gaineratzen du, bestalde, kausatzailea adingabea izatea edo hark desgaitasunen bat edukitzea; Kataluniakoak, aldiz, ez du halako betekizunik ezartzen.

Balear Uharteetan, ezduintasun-arrazoien artean bosgarrena hauxe da:

e) Kausatzailea delitua egin izanaz akusatu dutenak, baldin eta legeak delitu horri zigor larria jartzen badio eta akusazioa egin duena kondenatua izan bada, salaketa faltsua egiteagatik.

Balear Uharteetako testuak gogora ekartzen du Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 3. zenbakia:

Testamentugilea delitua egin izanaz akusatzen duena, baldin eta legeak delitu horrentzat espetxealdi edo presoaldi handia baino goragoko zigorra ezarri badu eta akusazioa kalunnia dela adierazi bada epai bidez.

Espainiako estatuko Kode Zibilaren arau hori, agerikoa denez, ez zaio egokitu azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren bitartez onetsitako Zigor Kodeari, gaur egun ez baitago espetxealdi edo presoaldi handiaren zigorrrik. Adituek adierazi duten moduan, egokitzapen hori interpretazio bidez egitea benetan zail gertatzen da. Hori dela eta, autore batzuek adierazi dute ezduintasun-arrazoi hori ondoriorik gabe geratu dela¹⁵. Beste batzuek, berriz, haren indarraldiari eustekotan, adierazi dute zigorra,

¹⁵ Ikus PÉREZ DE VARGAS MUÑOZ, J. (1997). *La indignidad sucesoria en el Código Civil español*. Ciencias Jurídicas (monografía). Mc-Graw Hill. Madril. 84. or.

gaur egungo Zigor Kodearen 11. xedapen iragankorra aplikatuta, 3 urtetik 8 arteko espetxealdi-zigorretik gorakoa izan behar dela.

Bestalde, Espainiako estatuko Kode Zibilaren arau honetan, akusazioa, izatez, salaketa edo kereilaren sinonimoa da, eta, gainera, beharrezkoa da kalumnia epai irmoan adieraztea, legegileak hori gutzia argitu ez arren.

Bazuen, beraz, zer hobetu Balear Uharteetako testuak, eta hala egin duela dirudi. Ez dio, ordea, Kataluniako Kode Zibilaren bideari eutsi, horrek, zehaztasun handiagoarekin, c) eta d) idatz-zatiak erreserbatzen baititu, 412-3 artikuluan, ezduintasun-arrazoi hauek ezartzeko:

c) Epaiketa penalean emandako epai irmoan kondenatua izan dena, kausatzailearen aurkako kalumnia egiteagatik, baldin eta kausatzailearen kontra delituaren akusazioa egin badu eta legeak delitu horrentzat hiru urteko espetxealdi-zigorra ezartzen badu gutxienez.

d) Epaiketa penalean epai irmoan kondenatua izan dena, kausatzailearen kontra lekukotza faltsua egiteagatik, baldin eta kausatzaileari delitua egotzi badio eta legeak delitu horrentzat hiru urteko espetxealdi-zigorra ezartzen badu gutxienez.

Bukatzeko, Balear Uharteetan, ezduintasun-arrazoiaren artean seigarrena eta zazpigarrena hauek dira:

f) Kausatzailea bultzatu edo behartu dutenak, oinordetza-xedapenak egilestera, ezeztatzerara edo aldaraztera, edo kausatzaileari eragotzi diotenak halako xedapenak egilestea, aldaraztea edo ezeztatzea.

g) Kausatzaileak mortis causa egiletsitako xedapenetatik edozein suntsitu, aldatu edo ezkutatu dutenak.

Ezduintasun-arrazoi bi horiek ezartzean, legegileak testamentua egiteko askatasuna babestu nahi du, eta, horretarako, askatasun horren aurkako atentatuak ezduintasun-arrazoiaren artean kokatzen ditu. Hori berori egiten

dute Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 5 eta 6. idatz-zatiek. Egia esateko, bi-biak batera aztertzeke modukoak dira:

El acto de última voluntad es el resultado de una personalísima y espontánea decisión del disponente, que la Ley garantiza... sancionando con indignidad a quien con violencia o dolo indujere al testador a manifestar una voluntad distinta de la querida. Constituyen, en efecto, causas típicas de indignidad para suceder los actos contrarios a la libertad de testar del de cuius cuyo objetivo sea obligarle a hacer testamento o a cambiar el ya otorgado (art. 756.5 del Código Civil); también revisten tal carácter los dirigidos a impedirle hacer testamento o a revocar el que tuviere hecho (art. 756.6 del Código Civil)¹⁶.

Batera arautzeke modukoak izanik ere, nahiz Balear Uharteetako testuak, nahiz Espainiako estatuko Kode Zibilak, bereizita arautzen dituzte, eta, horregatik, hemen ere bananduta azalduko dira.

Zehatz-mehatz, hauxe ezartzen du Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 5. idatz-zatiak:

Mehatxua, iruzurra edo indarkeria erabiliz, testamentugilea testamentua egin edo aldatzera behartzen duena.

Kasu horretan, lehen esan bezala, testamentua egiteko askatasunaren aurkako atentatua dago jasota. Atentatu hori norberaren edo beste inoren onurarako izan daiteke. Gainera, ez da kontuan izan behar ezduinak bere asmoa lortu duen ala ez; Auzitegi Gorenak argi utzi zuen hori, besteak beste, 1954. urteko maiatzaren 24ko eta 1975. urteko urtarri-laren 7ko epaietan.

¹⁶ HERNÁNDEZ-GIL, F. (1992; iraila). "Indignidad de suceder por actos atentatorios a la libertad de testar". *Poder Judicial*. 27. zk. 85. or.

Bestalde, idatz-zati hori lotu behar da Espainiako estatuko Kode Zibilaren 673. artikularekin; horren arabera, testamentua deuseza da, indarkeria, doloa edo iruzurra tartean izanez gero. Bistan denez, 756.5 artikulua eta 673. artikulua bat datoz indarkeria eta iruzurra aipatzean; baina, besteari dagokionez, deuseztasun-arrazoia “doloa” da, eta ezduintasun-arrazoia, berriz, “mehatxua”. Horrek berarekin ekarri du autoreek hainbat lerro idaztea, termino bakoitzak bere barruan zer hartzen duen argitzeko, betiere negozio juridiko guztiei dagokien teoria abiapuntu hartuta, ez testamentuari begira bakarrik.

Horrekin batera, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 6. idatz-zatiak hauxe du ezarrita:

Bide berberak erabiliz, testamentugileari testamentua egitea nahiz egindakoa ezeztatzea eragozten diona, eta geroko testamentua ordeztu, ezkatatu edo aldatzen duena.

Autoreen esanetan,

... presenta el mismo fundamento que la anterior, porque constituye un claro atentado contra la libertad de testar. Pero se diferencian en que, mientras el artículo 756.5º Cc contiene una sanción (indignidad) para quien atenta contra la libertad de disposición en su vertiente positiva (forzar a testar), en cambio, el artículo 756.6º Cc encierra también el mismo castigo para quien practicó ese mismo atentado, pero en su vertiente negativa (impedir que se haga testamento), y, además, va contra los atentados que persiguen manipular lo que el testador dispuso, para que parezca que quiso otra cosa¹⁷.

Hortaz, arauak bi zati ditu: bateko, ustezko ezduinak testamentugileari eragozteia testamentua egitea edo egindakoa ezeztatzea; eta, bestetik,

¹⁷ PÉREZ DE VARGAS MUÑOZ, J. (1997). *La indignidad sucesoria en el Código Civil español*. Ciencias Jurídicas (monografía). Mc-Graw Hill, Madril. 107. or.

ustezko ezduinak geroko testamentua ordeztu, ezkutatu edo aldatzea. Azken hiru hitz horiek interpretazio-arazoak sorrarazi dituzte.

Lehenengoaz denaz bezainbatean, “ordeztu” gaztelaniazko “suplantar” horren parekoa da:

Hay que entender que el giro legal de “suplantar” (ordeztu) comprende tanto la sustitución del testamento legítimo del de cuius por otro, obra de un tercero, con el fin de que éste rija la sucesión, como el apoderamiento del testamento auténtico, acto al que sigue su destrucción o inutilización con el propósito de que se abra la sucesión intestada¹⁸.

Bigarrenik, “ezkutatzea” (gaztelaniazko “ocultar”) da, besterik gabe, testamentua inork ez aurkitzeko lekuan jartzea. Ekintza hori testamentu olografoaren kasuan gertatuko da gehienbat, eta, neurri batean bederen, testamentu itxiaren kasuan (notarioa ez bada horren gordailuzaina). Testamentu irekiaren kasuan, berriz, nekez gertatuko da, halakoak notarioaren protokoloan daudelako.

Hirugarrenik, “aldatzea” (gaztelaniazko “alterar”) hitzak adierazi nahi du zati batez kausatzailearen testamentua faltsifikatzea. Horren harira, galdera izan daiteke ea testamentuaren zatietatik edozein aldatzeak berarekin dakarren ezduintasuna. Iritzirik zabalduenari helduta, aldagetak ezduintasuna eragin dezan, testamentugilearen borondatea baliogabetu behar du edo oinarrizko baliozkotasun-betekizunak ukitu behar ditu.

Hiru ekintza (ordeztu, ezkutatu, aldatu) horietatik edozein gertatuz gero, ordeztu, ezkutatu edo aldatutako testamentuak indarrean iraungo du, erabat ala zati batez.

¹⁸ HERNÁNDEZ-GIL, F (1993). “Indignidad sucesoria con causa en el artículo 756.6 inciso último del Código Civil: falsificar, destruir u ocultar el testamento del causante”. *La Ley: Revista jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía*. 2. zk. 920. or.

Bestalde, testamentu hori bakarra izan daiteke, nahiz eta lege-testuak «geroko» testamentua aipatu.

Los actos legalmente capaces de sustituir la voluntad del testador (suplantar, ocultar, alterar) sancionados con indignidad van referidos en el artículo 756.6 a un testamento posterior, lo que supone que el de cuius ha otorgado más de un testamento. En interpretación literal debería concluirse que si objeto de las manipulaciones legales hubiere sido el único testamento del causante, la causa de indignidad no estaría completa, criterio que con la más caracterizada doctrina debe rechazarse. En los casos en que la voluntad se hubiera manifestado en más de un testamento y los anteriores hubieran sido revocados, sólo tendrán naturaleza indignataria los actos atentatorios a la integridad y existencia del último testamento o testamento posterior. Pero los actos de ocultación, destrucción o falsificación son también idóneos para la indignidad de su autor si existiera un solo testamento¹⁹.

Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 6. idatz-zati hori lege-testu bereko beste artikuluko biren lotu behar da. Bateko, 674. artikuluko arabera, norbaitek dolo, iruzur edo indarkeriaz, beste inori bere azken nahia askatasunez adieraztea eragozten badio horren abintestato jaraunslea izanik, herentziaren gaineko eskubidea kenduko zaio, berak izan dezakeen erantzukizun kriminalari kalterik egin gabe. Besteko, testamentu itxiei buruzko 713. artikuluari eutsiz, norbaitek bere eskuetan testamentu itxia badu eta doloz ez badu testamentu hori aurkezten heriotzaren berri izan duenetik hamar eguneko epean, erantzukizuna izango du, zabarkeriaren ondoriozko kalte-galeren gainean, eta, horrekin batera, herentziarako eskubidea galduko du, eskubide hori badagokio abintestato jaraunsle gisa edo testamentuzko jaraunsle nahiz legatu-hartzaile gisa. Zigor bera ezarriko zaie testamen-

¹⁹ HERNÁNDEZ-GIL, F. (1993). "Indignidad sucesoria con causa en el artículo 756.6 inciso último del Código Civil: falsificar, destruir u ocultar el testamento del causante". *La Ley: Revista jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía*. 2. zk. 929. or.

tugilearen edo testamentua zaindu nahiz gordetzen duen pertsonaren egoitzatik testamentu itxia dolo ostentatzen duenari, eta beste modu batera testamentu itxia ezkutatu, apurtu edo baliogabetzen duenari ere bai, bidezkoa den erantzukizun kriminalari kalterik egin gabe.

Balear Uharteetako ezduintasun-arrazoi biak (f eta g idatz-zatietakoak) Espainiako estatuko Kode Zibilean ezarritakoekin (756. artikuluko 5 eta 6. idatz-zatietakoekin) alderatuta, badira nolabaiteko desberdintasunak. Balear Uharteetan, ezduintasuna ez da testamentura mugatzen, badirelako beste bide batzuk oinordetza antolatzeke (kontratua, berbarako); horregatik, “testamentua” aipatu beharrean, Balear Uharteetako testuak “oinordetza-xedapenak” edo “kausatzaileak mortis causa egiletsitako xedapenak” aipatzen ditu. Bestalde, Balear Uharteetan, f) idatz-zatiko ezduintasun-arrazoiak bere barruan hartzen ditu testamentua egiteko askatasunaren aurkako atentatu-mota biak, positiboa (behartu) eta negatiboa (eragotzi); Espainiako estatuko Kode Zibilean, berriz, arrazoi desberdinetara biltzen dira atentatu-mota biak. Eta, bukatzeko, Balear Uharteetako lege-testuaren g) idatz-zatiko arrazoiak jasotzen ditu ustezko ezduinak burututako hiru ekintzak: Balear Uharteetan, Espainiako estatuko Kode Zibilean bezala, “ezkutatu” eta “aldatu” esamoldeak onartu dira; baina, “ordeztu” nahasgarria ezarri beharrean, “suntsitu” adierazgarria erabiltzen da.

Kataluniako Kode Zibilaren 412-3 artikulua hona alderatuz gero, hauexek dira bertan jasotako ezduintasun-arrazoiak:

g) Kausatzaileari maltzurkeriaz eragin diona, kausatzaileak testamentua, oinordetza-ituna edo heriotzaren ondoriozko xedapenetatik beste edozein egilets, ezezta edo aldaraz dezan, edo hori eragotzi diona; bai eta, egitate horien berri izanik, horietatik probetxua atera duena ere.

h) Kausatzailearen testamentua edo heriotzaren ondorioz hark egiten dituen xedapenetatik edozein suntsitu, ezkutatu edo aldarazi duena.

Balear Uharten eta Kataluniaren arteko desberdintasunak, puntu honetan, jarraikoak baino ez dira:

1. Katalunian testamentua egiteko askatasunaren aurkako atentatuak maltzurkeriaz burutu behar dira; Balear Uharteetan, berriz, ez da halako ñabardurarik jartzen.

2. Katalunian ezduintasun-arrazoia Balear Uharteetan baino zabalagoa da, Katalunian ezduina izango baita, egitateen berri izanik, horietatik probetua atera duena.

Balear Uharteetako lege-testuak, labur-zurrean, sei ezduintasun-arrazoi horiek jasotzen ditu. Ez du bereganatu, ondorenez, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 4. kasuaren antzekorik:

Adin nagusiko jaraunslea, baldin eta jakin badaki testamentugilea indarkeriaz hil dela, eta, hilabeteke epean, ez badu heriotza hori auzitegietan salatzen, salbu eta auzitegiek ofizioz jardun dutenean edo legearen arabera akusatzeko betebeharririk ez dagoenean.

Egia esan, autore batzuen ustez, Espainiako estatuko Kode Zibilaren ezduintasun-arrazoi hori desagertu beharko litzateke, besteekin alderatuta ez delako hain larria. Gainera, arrazoi horren inguruan, zenbait betekizun izan behar dira:

- Ustezko ezduinaren inguruko betekizunak. Batetik, 756. artikuluko 4. idatz-zatiak “jaraunsle” hitza erabiltzen du, eta, horregatik, dudazkoa da legatu-hartzaileei aplikatzen zaien arrazoi hori. Esangura hertsian interpretatuta, ez litzateke aplikatu behar; baina Espainiako estatuko Kode Zibilaren 789. artikulua dio kapitulu oso horretako xedapenak legatu-hartzaileei ere aplikatzen zaizkiela, eta, horregatik, badirudi kasu horretan “jaraunsle” hitza “oinordeko” hitzaren pareko izan daitekeela. Bestetik, ustezko ezduin hori adin nagusikoa izan behar da. Hortaz, xedapenaren aplikazio-esparrutik kanpo geratzen dira adingabeak,

emantzipatuta egon arren; eta ematen du, adin nagusikoak izan arren, kanpoan geratu behar direla ezgaiak ere, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 199. artikulua aplikatuta.

- Kausatzailearen heriotzaren inguruko betekizunak. Batetik, beharrezkoa da kausatzailea indarkeriaz hiltzea, hau da, kausatzailea ez hiltzea berez, baizik eta norbaitek eraginda (norbait hori ezin da izan ustezko ezduina bera edo horren senitarteko batzuk; bestela, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluko 2. arrazoa aplikatuko da). Bestetik, ustezko ezduinak ziur jakin behar du kausatzailea indarkeriaz hil dela (duda edo zantzu hutsek ez dute balio).

- Prozesu-zuzenbidearen inguruko betekizunak. Batetik, salatzeke betebeharra egon behar da; osterantzean, ez dago ezduintasunik. Eta, horri lotuta, salatzeke betebeharra, epe jakin batean (hil bateko epean), urratu beharra dago. Horren harira, bi salbuespen hauek aplikatu behar dira: lehena, justizia-administrazioak dagoeneko *ex officio* ez jardutea; eta, bigarrena, *ex lege* salatzeke betebeharririk ez egotea.

La causa de indignidad que define el artículo 756.4 del Código Civil presenta especialidades que la separan claramente del resto de las enumeradas en el artículo 756. Efectivamente, si pueden, por norma, incurrir en indignidad los herederos o legatarios menores de edad, la causa que es objeto de estudio se circunscribe a los sucesores mayores de edad; la generalidad de las causas que inhabilitan para suceder a una determinada persona por razón del tiempo son anteriores a la apertura de la sucesión, pero la causa de indignidad comprendida en el artículo 756.4, no sólo es posterior a la muerte y a la apertura, sino que subsigue normalmente a la aceptación de la herencia; mientras que los demás motivos de indignidad tienen condicionada su eficacia a la voluntad expresa o tácita del causante a través del instituto de la rehabilitación (artículo 757), el que aquí se examina es incompatible con la remisión o perdón, tanto porque la declaración de rehabilitación es siempre sucesiva al hecho que determina la indignidad nacida

*antes del momento inicial del fenómeno sucesorio, como porque la rehabilitación es un negocio no condicionado; en tanto que las causas de indignidad conciliables con la sucesión testada constituyen también motivos legales de desheredación (artículo 852), la regulada en el artículo 756.4 es la única que conserva su autonomía frente a las causas de desheredación.*²⁰

Ziur asko, Balear Uharteetako legegileak kontuan hartu ditu eragozpen horiek guztiak, eta, horregatik, ez du arrazoi honen antzekorik jaso bere lege-testuan.

Ezduintasun-arrazoiaren azterketarekin bukatzeko, kontuan hartu behar da Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikulutik kanpo ere badirela, antza, ezduintasun-arrazoiak.

Egin-eginean ere, autore batzuen ustez, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluan jasotako zerrendari beste bi artikuluko gehitu behar zaizkio, hain justu ere, lege-testu horretako 713 eta 111. artikulukoak. Horietatik aurrenekoa lehen aipatu da testamentu itxiei buruzko aipamena egin denean (ikus *supra*).

Eta, besteari dagokionez, hauxe da Espainiako estatuko Kode Zibilaren 111. artikuluan ezarritakoa: gurasoak galdu egingo du lege-aginduz bere semearen, alabaren edo horren ondorengoen herentzietan berari dagozkion eskubideak, baldin eta giza sorkuntza ekarri duten harremanen ondorioz kondenatua izan bada epai penal irmoaren bidez, edo seme-alabatasuna epaiketaren bidez zehaztu bada bera horren aurka agertuta. Artikulu hori irakurrita, aztertu behar da zein diren lege-aginduz gurasoari ondorengoen herentzietan dagozkion eskubideak. Dirudienez, xedapen horrek aipatu nahi ditu senipartea eta abintestato kuota bakarrik;

²⁰ HERNÁNDEZ-GIL, F. (1969). "La obligación del sucesor de denunciar la muerte violenta del causante". In *Estudios de derecho civil en honor del Prof. Castán Tobeñas*. Ediciones Universidad de Navarra. II. liburukia. Iruñea. 234. or.

izan ere, artikulua ez du testamentuzko oinordetza aipatzen, eta, jakina denez, ezduintasun-arrazoia esangura hertsian interpretatu behar dira. Hortaz, testamentuan senipartetik gora eman bazaio zerbait gurasoari, senipartetik gorakoa jaso ahal izango du guraso horrek. Gainera, semeak edo alabak, adin-nagusitasuna eskuratzean, zehapena kendu ahal izango dio gurasoari, horixe onartzen baitu Espainiako estatuko Kode Zibilaren 111. artikulua azkenareko letrakadak.

Nondik-nahi begiratuta ere, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 713 eta 111. artikuluen kokaera sistematikoa ikusita, eta legegileak horietan beren-beregi ezduintasuna aipatzen ez duela aintzakotzat hartuta, autore batzuek ukatu egiten dute halakoak ezduintasun-arrazoi direnik. Hori dela eta, ez da artikulua honetan sakonduko, bi horiek Balear Uharteetan izan dezaketen aplikazioari buruz.

2.3. Ezduintasuna adierazteko akzioa

Apirilaren 27ko 3/2009 Legeak, Balear Uharteetarako ezduintasun-arrazoia ezarri ondoren, paragrafo berezi batean, ezduintasuna adierazteko akzioa arautzen du honetara:

Oinordeko izateko ezduintasunari dagokionez, ezduintasun hori adierazteko akzioaren irautze-epea bost urtekoa da, eta epe horren zenbaketa hasten da, akzioa egikaritzeko legitimazioa nork izan eta horrexek ezduintasunaren berri duenetik edo horren berri izateko aukera izan duenetik; edozein kasutan ere, akzioaren irautze gertatuko da, behin bost urte igaro direnean, oinordeko izateko ezduina denak herentziako ondasunen edukitza eskuratu duenetik. Epai kondenatzailea lortzea beharrezkoa den kasuetan, epai hori irmo izateari itxarongo zaio.

Balear Uharteetako testuak Kataluniako Kode Zibilaren 412-7 artikuluan ezarritako ildoari heltzen dio. Izan ere, Kataluniako testuak honetara arautzen du ezduintasun-akzioaren irautze-epea:

Ezduintasun-akzioa iraungi egiten da, lau urteko epean, hori egikaritzeko legitimazioa duenak ezduintasun-arrazoia dakienetik edo jakin dezakeenetik zenbatuta, eta, betiere, behin lau urte igaro direnean, ezduinak herentziako ondasunen edukitza eskuratu duenetik. Akzioa jaraunslerei eskualdatu ahal zaie. Dena den, ezduintasun-arrazoia gerta dadin, epai irmoa beharrezkoa denetan, iraungitze-epaia ez da hasiko, epai hori irmoa izan arte.

Bi testuen arteko desberdintasuna, nolana ere, begi-bistakoa da: Balear Uharteetan, ezduintasuna adierazteko akzioaren iraungitze-epaia bost urtekoa da, eta Katalunian, berriz, lau urtekoa.

Bost urteko iraungitze-epaia ezartzen du, orobat, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 762. artikulua, baina artikulua hori Balear Uharteetako baina zehaztugabeagoa da. Arean ere, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 462. artikulua haxe besterik ez du ezartzen: ezin da ezduintasuna adierazteko akziorik egikaritu, bost urte igaro badira, ezduinak herentziaren edo legatuaren gaineko edukitza duenetik.

Autoreek adierazi dutenari helduta²¹, bost urteko iraungitze-epaiearen zenbaketa hasten da, ezduinak edukitza benetan eskuratzen duenean. Ez da aplikatzen, ordea, edukitza zibil-zibilaren presuntzioa, epea heriotzatik zenba dadin; are gehiago, ez da beharrezkoa ezduinak herentzia onartuta izatea, akzioa jartzeko aukera egon dadin.

Legitimazio aktiboaz denaz bezainbatean, hori zabala dela azpimarratu behar da, legitimazio aktiboa baitute, ezduintasuna adierazi eta ezduina baztertuta geratuz gero, onuraren bat lortuko duten guztiek. Legitimazio

²¹ Ikus MÉNDEZ TOMÁS, R. M.; VILALTA NICUESA, A. E. (1998). *Acción declarativa de la indignidad para suceder*. Acciones Civiles. Biblioteca Básica de Práctica Procesal. 98. zk. Bosch. Bartzelona. Liburu horrek, 55. orrialdetik 74. erakoetan, ezduintasuna adierazteko akzioari buruzko formulario praktikoa jasotzen ditu, eta formulario horiek oso interesgarriak dira prozesuaren ikusmiratik.

pasiboari helduta, demandatua izango da ezduina bera. Horren harira, jarraikoa adierazi du HERNÁNDEZ-GILEk:

... es claro que si el culpable del hecho productor de indignidad no entra en la posesión de los bienes hereditarios ni los reclama, no es necesario el ejercicio de acción alguna. Tampoco cuando después de proclamada la indignidad el indigno renuncia a la herencia. Si no ha aceptado aún, la demanda dirigida a que se declare la indignidad no puede producir la exclusión de la herencia, sólo tendría como finalidad hacer pasar la delación a quienes la propongan²².

Akzioaren xedeari dagokionez, ezduintasuna adierazteko akzioa jartzen da, herentziako ondasunak itzul daitezen, haien akzesio guztiekin, eta jasotako fruitu nahiz errentekin batera. Horixe ezartzen du, ezarri ere, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 760. artikulua. Zalantzan jar daiteke, ordea, “jasotakoak” bakarrik itzuli behar diren. Artikuluaren hitzez-hitzez kotasanari helduta, hala izan behar da. Zernahi gisaz, edukitzaren likidazioari buruzko artikuluetara joz gero, eta ezduina edukitzaile gaitzusteduna dela ulertuz gero, ezduin horrek, “jasotako” fruitu eta errentez gain, “jaso ahal izango zituzkeenak” ere itzuli behar ditu (Espainiako estatuko Kode Zibilaren 455. artikulua, edukitzaile gaitzustedunari buruzkoa). Eztabaida hori argitzekotan, esan beharra dago, duda-mudarik gabe, ezduintasuna adierazteaz geroztik, ezduinak badakiela edukitzeko titulurik ez duela, eta, beraz, une horretatik aurrera behintzat, ezin da ukatu gaitzusteduna denik; hori gorabehera, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 760. artikulua ez dator bat lege-testu bereko 455. artikuluekin. Bestalde, ezduina edukitzaile onusteduna dela uste izatea ere ez dirudi egokia denik; bestela, bere egingo lituzke jasotako fruituak. Hortaz, eztabaida honen ondorio gisa nabarmendu

²² HERNÁNDEZ-GIL, F. (1961; maiatza). “La indignidad sucesoria: naturaleza jurídica, declaración judicial y efectos”. *RDP*. 45. zk., 481. or.

behar da ezduinaren edukitza berezia edo *sui generis* dela, ez datorrelako bat bete-betean ez edukitzaile gaitzustedunarenakin, ez edukitzaile onustedunarenarekin.

Bukatzeko, gogoratu behar da ezduintasuna adierazteko akzioa jarri duenak honako hauek frogatu behar dituela: ezduintasun-arrazoia bera; testamentugileak ez zuela arrazoiaren berri izan testamentua egitean, edo arrazoia testamentuaren ostean agertu zela eta ez zuela agiri publikoan barkatu; eta, halaber, arrazoia kausatzailearen heriotza-unean bazela izan.

2.4. Ezduintasuna barkatzea: ezduina birgaitzea

Ezduintasuna barkatzea, edo, beste modu batera esanda, ezduina birgaitzea, izatez, kausatzailearen alde bakarreko borondate-aitorpen esanbidezko edo isilbidezkoa da:

*En todos los sistemas jurídicos la indignidad supone la existencia comprobada de ciertos motivos que inhabilitan para suceder a determinada persona por su conducta incorrecta o inmoral respecto del causante; en un plano objetivo, tales personas son hábiles para suceder y pueden serlo de nuevo, pues la inhabilidad conminada por la ley no es imperativa, ya que la voluntad del de cujus actúa eficazmente para eliminarla*²³.

Balear Uharteetako apirilaren 27ko 3/2009 Legeak, ordea, ez du ezer arautzen ezduintasuna barkatzeari buruz. Aitzitik, azken paragrafoak ondokoa baino ez du ezartzen:

Gainerako gaietan, (Espainiako estatuko) Kode Zibila aplikatzen da, ordezeko gisa.

²³ HERNÁNDEZ-GIL, F. (1962; apirila). “La rehabilitación del indigno”. *RDP*. 46. zk., 285. or.

MASOT MIQUEL²⁴ adierazi duen bezala, gerta daiteke Espainiako estatuko Kode Zibila Balear Uharteetan aplikatzea, hiru aukera hauek baliatuta:

1) Zuzenean aplikatzea, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 13. artikulua aginduz.

2) Igorpenaren ondorioz aplikatzea.

3) Ordezko gisa aplikatzea, Balear Uharteetako zuzenbide zibila lehentasunez aplikatzen den heinean.

Igorpenaren ondorioz aplikatzea, izatez, legegintzazko tekniketarik bat da:

La aplicación por “remisión” significa la declaración expresa de aplicabilidad de una o unas normas estatales, que no requieren pasar por el filtro de los principios generales del derecho civil propio, porque existe el llamamiento expreso. El legislador, al llamar expresamente a una o varias normas estatales para que se apliquen, está utilizando una técnica legislativa, una forma de ejercicio de la potestad de legislar...

Por el mecanismo de la remisión, una norma balear, es decir, una norma “propia” y “principal” declara que una norma estatal es aplicable en Baleares, pero no la convierte en “derecho propio” (no la baleariza), sino que continúa siendo una norma estatal, por lo que es indispensable la aplicación de la disposición final segunda de la Compilación, a fin de impedir que los cambios en la norma estatal repercutan en el derecho balear, por la vía de la remisión²⁵.

²⁴ MASOT MIQUEL, M. (1990). “El Código Civil y su aplicación en el Derecho civil balear”. In *Centenario del Código Civil (1889-1989)* (1990). II. liburukia. Centro de Estudios Ramón Areces. Madril. 1306. or.

²⁵ FERRER VANRELL, M. P. (2004). *Lecciones de Derecho civil balear*. Col lección Materials Didàctics, 82. zk. Universitat de les Illes Balears. 3. argitaraldi berrikusia. Palma. 81. or.

Ez du igorpena aipatzen, haatik, apirilaren 27ko 3/2009 Legeak. Egin-eginean ere, lege horrek argi uzten du Espainiako estatuko Kode Zibila aplikatzekotan, hori ordezko gisa gertatuko dela.

Es evidente que la supletoriedad es el mecanismo para colmar las insuficientes del derecho de aplicación preferente o “inmediata”. El fundamento de la supletoriedad es la insuficiencia, no el conflicto de normas.

Ante la imposibilidad de poder colmar la insuficiencia entra la aplicación defectiva del derecho llamado a suplirla²⁶.

Zuzenbide erkidea ordezko gisa aplikatzeak nolabaiteko ezinegona sorrarazten du, zuzenbide berezkoa duten lurraldeetako autoreen artean:

La actual situación supone la crisis del mecanismo de la supletoriedad, o puede suponerla, ya que dependerá de la actividad legislativa autonómica. La situación, a modo de ejemplo, es clara si comparamos la situación balear con la catalana. La balear necesita de la aplicación supletoria del Código Civil, por la inactividad del Parlament balear. Cataluña será próximamente autosuficiente, por la gran actividad legislativa desplegada por su Parlamento²⁷.

Katalunian, ez da puntu honetan ordezko gisa aplikatu behar Espainiako estatuko Kode Zibila, Kataluniako Kode Zibilaren 412-4 artikulua berradiskidetzea eta barkamena arautzen baititu honetara:

1. Oinordeko izateko ezduintasun-arrazoiek ez dute ondorioz izango:

²⁶ FERRER VANRELL, M. P. (2002). “Las Fuentes del Derecho civil balear: artículo 1 de la Compilación del Derecho Civil de Baleares”. *Boletín de Información. Ministerio de Justicia*. 1918. zk. IV. liburukia. 1835. or.

²⁷ FERRER VANRELL, M. P. (2004). *Lecciones de Derecho civil balear*. Col lección Materials Didàctics, 82. zk. Universitat de les Illes Balears. 3. argitaraldi berrikusia. Palma. 63. or. Une horretan, Kataluniak oraindik ez zeukan onartuta oinordetza-zuzenbideari buruzko liburua. Behin hori onetsita, gaur egun esan daiteke, nolabait, “autosuficiente” dela.

a) Kausatzaileak xedapena egiten badu ezduinaren mesederako, ezduintasun-arrazoia jakinda.

b) Kausatzaileak, ezduintasun-arrazoia jakinda, ezduinarekin berradiskidetzen bada, egintza zalantzaezinen bitartez, edo arrazoi hori barkatzen badio eskritura publikoan.

c) Oinordetza-itunetan egindako xedapenen kasuan, kausatzaileari eratzikitako ezeztatze-ahalmena iraungitzen bada.

2. Berradiskidetzea eta barkamena ezeztatzinak dira.

Katalunian gertatu aldera, Balear Uharteetan, Espainiako estatuko Kode Zibila aplikatu behar da, ordezeko gisa, ezduina birgaitzeari dagokionez. Zuzenbide erkide hori hona alderatuta, kausatzaileak bere borondatez ezduintasun-arrazoia barkatu ahal dio ezduinari, aipatu lege-testuaren 757. artikulua araberako. Barkatze edo birgaitze hori gerta daiteke isilbidez (testamentugileak, ezduintasun-arrazoia dagoela jakin arren, testamentuan oinordetzarako deia egiten dio ezduinari) eta esanbidez (testamentua egina eta gero, ezduintasun-arrazoia berri izanez gero, hori agiri publikoaren bidez barkatzen dio testamentugileak ezduinari).

Espainiako estatuko Kode Zibilaren aipatu artikulua zenbait interpretazio-arazo eragin ditu.

Aurrenik, 757. artikulua ezduintasuna barkatzea arautzen du testamentuzko oinordetzaren kasuan, baina ez du ezer ere esaten abintestato oinordetzari buruz.

Hurrenik, zalantzazkoa da barkatze hori oso-osokoa izan behar den edo partziala izan daitekeen.

Se trata de resolver, si junto a la remisión total de la indignidad æque elimina completamente los efectos, las consecuencias sancionatorias de la indignidad sucesoria, y que coloca, por tanto, al indigno rehabilitado, respecto de la sucesión

mortis causa del causante ofendido, en la misma posición jurídica que si no estuviera incurso en causa de indignidadæ, cabe, también, una remisión parcial de la misma æen la que la voluntad del causante, expresada, como exige el artículo 757 Cc., bien en testamento, bien en documento público, gradúa o limita los efectos, consecuencias sancionatorias de la indignidad, sin llegar a eliminarlos por completo, pero evitando, en cualquier caso, que tengan el alcance total de la indignidad no rehabilitadaæ²⁸.

Autore batzuek argiro-argiro kontrakoa adierazten duten arren, badirudi onargarria dela barkamen partziala. Zuzenbidearen printzipio orokorra da, izatez, honako hau: gehienekoa ahal duenak gutxienekoa ere ahal du (“quien puede lo más, puede lo menos). Horregatik, eta arraro gerta badaiteke ere, testamentugileak ezduinari barkamen partziala ematearekin batera, senipartea baino gutxiago eman ahal dio, eta, hala bada, ezduinak ezin izango du egikaritu osagarria eskatzeko akzioa. Ezduin horren ondorengoek, dena den, ordezkapen-eskubidea izango dute, ezduinari eman ez zaion seniparte-zatian.

Ez dira horrekin agortzen, ordea, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 757. artikulua eragin dituen interpretazio-arazoak:

Dichos interrogantes, entre otros, son los siguientes:

- *¿qué ocurre con la legítima en caso de que el indigno legitimario no sea hijo o descendiente del causante, sino ascendiente o cónyuge viudo del mismo?*

- *¿quid si aún siendo hijo o descendiente del causante el indigno no tiene hijos o descendientes suyos pero sí ascendientes? ¿Y si tampoco tiene ascendientes?*²⁹

²⁸ JORDANO FRAGA, F. (2004). “Algunos aspectos del régimen de la indignidad sucesoria en relación a la legítima dentro del Código Civil”. In *Libro homenaje al Profesor Manuel Albaladejo García*. I. liburukia. Murtziako Unibertsitatea. 2555. or.

²⁹ MENA-BERNAL ESCOBAR, M. J. (1995). *La indignidad para suceder como figura de exclusión de herencia en el Código Civil español*. Tirant monografías, 39. zk. Tirant lo Blanch. Valentzia. 111. or.

2.5. Ezduintasuna kalifikatzeko unea

Balear Uharteetan, apirilaren 27ko 3/2009 Legeak ez du gai hori ere arautu, eta, beraz, ezduina birgaitzearekin gertatzen den bezala, gai hone-tan ere Espainiako estatuko Kode Zibila, eta, zehatzago esateko, lege-testu horren 758. artikulua aplikatu behar da ordezko gisa. Orobat Katalunian ere, bertako Kode Zibilaren IV. liburuak ez baitu xedapen berezirik ezarri, ezduintasuna kalifikatzeko uneari buruz³⁰.

Espainiako estatuko Kode Zibilaren 758. artikulua hurrengoia xeda-tzen du:

Jaraunsle edo legatu-hartzailearen gaitasuna kalifikatzeko, zein pertsonaren oinordetza izan eta horren heriotza-data izan behar da kontuan.

756. artikulua 2 eta 3. kasuetan, epaia irmo izateari itxaron beharko zaio; 4. zenbakian, aldiz, salaketa egiteko hilabetea igarotzeari.

Jaraunsle-izendapena edo legatua baldintzapekoa bada, baldintza betetzeko unea ere kontuan izan behar da³¹.

Artikuluaren egitura argi dago: lehenengo lerroak erregela nagusia ezarri ondoren, beste bi lerroek salbuespenak jartzen dituzte.

³⁰ Zernahi gisaz, Kataluniako Kode Zibilaren inguruan, gaitasuna baloratzeko uneari buruz hitz eginez gero, aintzat hartu beharrekoak dira pertsona fisikoei buruzko 412-1 artikulua eta pertsona juridikoei buruzko 412-2 artikulua. Lehendabizikoaren arabera, pertsona fisiko guztiek oinordeko izateko gaitasuna dute, baldin eta oinordetza irekitzeko unean dagoeneko jaiota edo ernalduta badaude, eta kausatzailearen ondoren hiltzen badira; baldin eta gurasoetatik bat hil ondoren, eta lagundutako ugalketa legearen arabera erabiliz, semerik edo alabarik jaio bada, seme edo alaba horrek gaitasuna izango du, aurrez hildako gurasoaren oinordeko izateko. Bigarrenari helduta, pertsona juridikoen oinordeko izateko gaitasuna dute, oinordetza irekitzeko unean dagoeneko legearen arabera erata badaude; kausatzaileak, heriotzaren ondoriozko xedapenean, pertsona juridikoren bat sortzea agintzen badu, horrek oinordeko izateko gaitasuna izango du, baldin eta azkenean eraten bada, eta, kasu horretan, oinordetzaren ondorioak atzera-eraginezkoak dira oinordetza irekitzeko unea arte.

³¹ *Kode Zibila/Código Civil* (2007). Deustuko Unibertsitatea. 2. argitaraldia. Bilbo. 416. or.

Ezduintasuna kalifikatzeko uneari dagokionez, erregela nagusia da heriotza-data aintzakotzat hartzea. Erregela hori, bat dator, bete-betean, legetestu bereko 657. artikuluekin (norbaiten oinordetzarako eskubideak eskualdatzen dira bera hiltzen den unetik), bai eta 661. artikuluekin ere (heriotzaren egitate hutsa dela bide, hildakoaren jaraunsleak haren eskubide eta betebeharren oinordeko bihurtzen dira).

Salbuespenak, berriz, hurrengoak dira: epaia egotea beharrezkoa denetan, hori irmo izateari itxaron behar zaio; kausatzailea indarkeriaz hil dela salatzea beharrezkoa denetan, hilabete igarotzeari itxaron behar zaio; eta, bukatzeko, heriotzaren ondoriozko xedapena baldintzapekoa denetan, baldintza betetzeko unea izan behar da kontuan.

2.6. Ezduintasunaren ondorioak

Balear Uharteetan, apirilaren 27ko 3/2009 Legeak ez du gai hori ere arautu, eta, beraz, ezduina birgaitzearekin eta ezduintasuna kalifikatzeko unearekin gertatzen den bezala, gai honetan ere Espainiako estatuko Kode Zibila aplikatu behar da ordezko gisa.

Egia esateko, ezduintasunaren ondorioak desberdinak izango dira, ezduintasun horren kontzeptua zein izan eta horren arabera. Beste hitz batzuekin azalduta, ezduintasunaren ondorioak desberdinak izango dira, oinordeko izateko ezgaitasun-kasua den ala ez kontuan hartuta. Oinordeko izateko ezgaitasun-kasua izanez gero, oinordeko ezduinari ez zaio herentziara deituko, ezta ezer eskainiko ere (hau da, ez du bokaziorik ez delaziorik izango). Ezduintasuna ez bada, ordea, oinordeko izateko ezgaitasun-kasua, orduan oinordeko ezduin horri herentziara deitu eta hori eskainiko zaio, ezduinak herentzia onar dezake, baina gero ezin izango dio eskuratutakoari eutsi, kendu egingo zaiolako, baldin eta legitimazioa dutenek ezduintasun hori adierazteko akzioa egikaritzen badute eta akzioak aurrera egiten badu.

Ezduintasunaren ondorioei zehatz-mehatz erreparatuta, Espainiako

estatuko Kode Zibilaren 756. artikulua ezduintasun-arrazoietatik bigarrena arautzean (hau da, bizitzaren aurkako atentatuari buruzkoa arautzean), beren-beregi ezartzen du, ofentsagilea nahitaezko jaraunslea baldin bada, seniparte-eskubidea galduko duela. Hitzez hitz hartuta, badirudi ezduinak senipartea galtzen duela, bizitzaren aurkako atentatuaren kasuan bakarrik. Nolanahi ere, lehen esan bezala, autoreek aho batez onartu dute (batez ere, Auzitegi Gorenak 1947. urteko otsailaren 20an epaia emateaz geroztik), ezduintasun-arrazoi guztien kasuan gertatzen dela senipartea galtzea. Hori da, beraz, ezduintasunaren ondorioetatik bat.

Beste ondorio bat da, halaber, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 761. artikulua ezartzen duena. Horren arabera, ezduintasunaren ondorioz herentziatik baztertua izan dena testamentugilearen semea, alaba edo ondorengo bada, eta seme, alaba edo ondorengo horrek seme-alabak edo ondorengoak baditu, horiek eskuratuko dute hark senipartearen gainean duen eskubidea. Hortaz, ezduinaren seme-alabek edo ondorengoek ezduina ordezkatzeko eskubidea dute seniparte-zatian. Ordezkapen-eskubidearen aplikazioa argi dago, beraz, seniparteaz denaz bezainbatean.

En cambio es mucho más dudoso este último tema acabado de sugerir: si la representación en los casos de desheredación e indignidad del descendiente de grado más próximo alcanza a la total cuota intestada, o se limita a la legítima. En este tema pueden encontrarse dos posturas enfrentadas... se puede decir que son favorables a la tesis de la representación restringida a la legítima muchos más autores, que los que se pueden citar como exponentes de la tesis contraria, es decir, la de que la representación se produce en la total cuota intestada³².

³² ESPEJO LERDO DE TEJADA, M. (2004). "Alcance cuantitativo del derecho de representación sucesorio en los casos de indignidad y desheredación". In *Libro homenaje al Profesor Manuel Albaladejo García*. I. liburukia. Murtziako Unibertsitatea. 1473 eta 1474. orr.

Kataluniako lege-testuari so eginez gero, bertan bi xedapenetara bildu da ezduintasunaren ondorioei buruzko arauketa, eta hor zeukan Balear Uharteetako legegileak eredu ona, berak ere antzeko arauketa ezartzeko. Alde batetik, Kataluniako Kode Zibilaren 412-6 artikulua arabera, ezduinari egindako ondare-eratzikipenak eraginik gabekoak dira, eta eragingabetasun hori inbokatu beharko dute ezduintasuna adieraziz gero berehalakoan oinordetzaren onuradun gertatuko direnek; ustezko ezduinak ez badu eragingabetasun-arrazoia aitortzen, epaiketara jo beharko da, epaileak hori adieraz dezan. Eta, beste alde batetik, 412-8 artikuluaekin bat etorritz, behin ezduintasuna aitortuta edo adierazita, ezduinak herentziako ondasunen edukitza izan badu, edukitza hori likidatu beharko da, eta ezduina gaitzustedun edukitzailetzat hartu behar da. Ezduintasunaren ondorioak atzera-eraginezkoak dira, delazioa arte. Alabaina, ezduintasuna norberari bakarrik dagokio, eta ez dagokie, ordea, ezduinaren seme-alaba eta ondorengoei, horiei oinordetzara deitzen bazaie.

3. EZDUINTASUNARI BURUZKO ARAUKETA, EUSKAL HERRIKO FORU-ZUZENBIDEETAN

3.1. Gaur egungo lege-egoera

Uztailaren 1eko 3/1992 Legeak, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoak, Bizkaiko foruari dagokionez, ezduintasuna aipatzen du 48 eta 79. artikuluetan. 48. artikulua arabera, testamentu-ahalordea azkentzeko arrazoiaren artean seigarrena da komisarioak, kausatzaileari begira edo haren ondorengoei begira, oinordeko izateko ezgaitasuna dakarten ezduintasun-arrazoietatik bat betetzea. 79. artikulua arabera, oinordetza-itunen kasuan, izendatzaileek izendapena ezeztatzeko arrazoiaren artean hirugarrena da izendatuak ezduintasun-arrazoiren bat edo jaraunsgabetze-arrazoiren bat betetzea. Eta, Gipuzkoako foruari

dagokionez, 171 eta 185. artikuluetan aipatzen da ezduintasuna, aurrekoen hari bertsutik. 171. artikulua arabera, testamentu-ahalordea azkentzeko arrazoen artean seigarrena Bizkairako 48. artikuluan bertan ezarritakoa da, alegia, komisarioak, kausatzaileari begira edo haren ondorengoei begira, oinordeko izateko ezgaitasuna dakarten ezduintasun-arrazoietatik bat betetzea. Eta, 185. artikuluaekin bat etorritz, izendatzaileak izendapena ezeztatu ahal izango du, hirugarren arrazoi gisa eta Bizkaiko 79. artikulua hari beretik, izendatuak ezduintasun-arrazoiaren bat edo jaraungabetze-arrazoiaren bat betetzen badu.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitatean, Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioak edo Nafarroako Foru Berriak zenbait aipamen egiten ditu ezduintasunari buruz.

65. legearen arabera, gurasoek euren ahalpeko seme-alaben ondasunak administratuko dituzte, salbuespeneko kasu batzuetan izan ezik. Kasu horietatik bat da, hain justu ere, mortis causa eskuratutako ondasunena, baldin eta aitak, amak edo bi-biek ezin badituzte horiek eskuratu, ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasunarengatik; kasu horretan, ondasun horiek beste gurasoak administratuko ditu, eta, horrelakorik izan ezean, epaiketa bidez izendaturiko administratzaileak.

153. legeari helduta, pertsona orok du gaitasuna, inter vivos nahiz mortis causa, doan eskuratzeko. Salbuespenez, eskuratzeko debekua dute, Espainiako estatuko Kode Zibilaren 756. artikuluan aipaturiko arrazoen ondorioz, oinordeko izateko gai ez diren pertsonak, salbu eta frogatzen denean xedatzaileak arrazoi hori bazekiela eskuzabaltasuna ordenatzeko unean.

215. legearekin bat etorritz, oinordetza-ituna eta testamentua baliozkoak dira, nahiz eta horietan jaraunsle-izendapenik jaso ez, edo horiek ondasun guztiak hartu ez; eta testamentua eragingarria da, orobat, izendatua jaraunsle izateko gai izan ala ez, edo horrek herentzia onartu ez arren.

Bukatzeko, 276. legeak ezartzen du erreserba egiteko betebeharra azkendu egingo dela, erreserba-hartzaile guztiek euren eskubideei uko egiten dietenean, horiek oinordeko izateko gaitasunik ez dutenean, legez jaraungabetuak izan direnean edota erreserbagilea baino lehenago hil direnean, aurrez hiltze kasuetarako ordezkapen-eskubidea salbu.

3.2. Euskal Herrian egitekoak

Aurreko lege-xedapenak ikusita, argi dago Euskal Herriko foru-zuzenbideek ezduintasuna aipatu eta kontuan hartzen dutela; baina, ezduintasunaren arauketa berezkorik ezarri ez dutenez gero, Espainiako estatuko Kode Zibilaren arauketa ordezkoko gisa aplikatu behar da, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Nafarroako Foru Komunitatean.

*Los Derechos civiles territoriales son, por tanto, temporalmente incompletos hasta que los legisladores autonómicos, en el ejercicio de sus competencias, llenen las lagunas existentes mediante la producción legislativa*³³.

Balear Uharteetako legegileak, etxeko indarkeriaren aurkako borroka baliatuta, bere zuzenbide zibila osatzeko ahalegina burutu du, oinordeko izateko ezduintasunari dagokionez. Gure autonomia-erkidegoetako legegileei ahalegin berbera egitea eskatu behar diegu. Hori izan daiteke lehen pausoa, gure zuzenbide zibil berezkoak ezari-ezarian aberasteko, eta, horrela, gizarteak unean-unean dituen beharrianak artez asebetetzeko.

³³ FERRER VANRELL, M. P. (2002). "Las Fuentes del Derecho civil balear: artículo 1 de la Compilación del Derecho Civil de Baleares". 1918. zk. IV. liburukia.

4. BIBLIOGRAFIA

Eskuliburuak

BADENAS CARPIO, J. M. (2007). *Las donaciones colacionables en el Derecho civil balear*. Tirant lo Blanch. Colección privado, 86. zk. Valentzia.

CAPILLA, F.; LÓPEZ, A. M.; ROCA, E.; VALPUESTA, M^a. R.; MONTÉS, V. L. (1997). *Oinordetza zuzenbidea*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.

FERRER VANRELL, M. P. (2004). *Lecciones de Derecho civil balear*. Col lección Materials Didàctics, 82. zk. Universitat de les Illes Balears. 3. argitaraldi berrikusia. Palma.

GETE-ALONSOY CALERA, M^a. C.; NAVAS NAVARRO, S.; SOLÉ RESINA, J.; YSÀS SOLANES, M. (2008). *Nociones de Derecho civil vigente en Cataluña*. Tirant lo Blanch. Valentzia.

JORDANO FRAGA, F. (2004). *Indignidad sucesoria y desheredación (algunos aspectos conflictivos de su recíproca interrelación)*. Colección Estudios de Derecho Privado. 40. zk. Comares. Granada.

KARRERA EGIALDE, M. (2008). *Oinordetza zuzenbidea*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argiltapen Zerbitzua. Bilbo.

LARRONDO LIZARRAGA, J. (2008). *El nuevo Derecho sucesorio catalán (Análisis del Libro IV del Código Civil de Cataluña)*. Bosch. Bartzelona.

LLEDÓ YAGÜE, F. (zuz.) (2004). *Compendio de Derecho Civil. Derecho de sucesiones. Tomo V*. Dykinson. Madril.

MENA-BERNAL ESCOBAR, M. J. (1995). *La indignidad para suceder como figura de exclusión de herencia en el Código Civil español*. Tirant monografías, 39. zk. Tirant lo Blanch. Valentzia.

MÉNDEZ TOMÁS, R. M.; VILALTA NICUESA, A. E. (1998). *Acción declarativa de la indignidad para suceder*. Acciones Civiles. Biblioteca Básica de Práctica Procesal. 98. zk. Bosch. Bartzelona.

PÉREZ DE VARGAS MUÑOZ, J. (1997). *La indignidad sucesoria en el Código Civil español*. Ciencias Jurídicas (monografía). Mc-Graw Hill. Madril.

RIVAS MARTÍNEZ, J. J. (2009). *Derecho de sucesiones, común y foral*. I. liburukia. Dykinson. 4. argitaraldia. Madril.

Artikuluak

BEATO DEL PALACIO, E. (2006). “La indignidad para suceder: causas de desheredación”. In *Raíces de lo ilícito y razones de licitud. Fundamentos de conocimiento jurídico*. Dykinson. Madril. 63. orrialdetik 110.erakoak.

CALVO GONZÁLEZ, J. (2007). “El principio “Ley de la ventaja” y la regla de indignidad sucesoria”. In <http://webpersonal.uma.es/~JCALVO/docs/ventaja.pdf>.

ESPEJO LERDO DE TEJADA, M. (2004). “Alcance cuantitativo del derecho de representación sucesorio en los casos de indignidad y desheredación”. In *Libro homenaje al Profesor Manuel Albaladejo García*. I. liburukia. Murtziako Unibertsitatea. 1471. orrialdetik 1492.erakoak.

FERRER VANRELL, M. P. (2002). “Las Fuentes del Derecho civil balear: artículo 1 de la Compilación del Derecho Civil de Baleares”. *Boletín de Información. Ministerio de Justicia*. 1918. zk. IV. liburukia. 1817. orrialdetik 1841.erakoak.

GREGORI LÓPEZ, F. M. (1991; martxoa-apirila). “Indignidad sucesoria, especialmente referida a la sucesión intestada y principalmente por causa de abandono de hijos”. *Rev. Tapia*. 57. zk. 13. orrialdetik 17.erakoak, eta 37. or.

HERNÁNDEZ-GIL, F. (1961; maiatza). “La indignidad sucesoria: naturaleza jurídica, declaración judicial y efectos”. *RDP*. 45. zk., 460. orrialdetik 492.erakoak.

HERNÁNDEZ-GIL, F. (1962; apirila). “La rehabilitación del indigno”. *RDP*. 46. zk., 285. orrialdetik 307.erakoak.

HERNÁNDEZ-GIL, F. (1965; otsaila). “La indignidad por incumplimiento de los deberes legales”. *RDP*. 49. zk. 109. orrialdetik 121.erakoak.

HERNÁNDEZ-GIL, F. (1969). “La obligación del sucesor de denunciar la muerte violenta del causante”. In *Estudios de derecho civil en honor del Prof. Castán Tobeñas*. Ediciones Universidad de Navarra. II. liburukia. Iruñea. 227. orrialdetik 257.erakoak.

HERNÁNDEZ-GIL, F. (1992; iraila). “Indignidad de suceder por actos atentatorios a la libertad de testar”. *Poder Judicial*. 27. zk. 85. orrialdetik 108.erakoak.

HERNÁNDEZ-GIL, F. (1993). “Indignidad sucesoria con causa en el artículo 756.6 inciso último del Código Civil: falsificar, destruir u ocultar el testamento del causante”. *La Ley: Revista jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía*. 2. zk. 918. orrialdetik 930.erakoak.

HERNÁNDEZ IBÁÑEZ, C. (2006). “La causa séptima de indignidad sucesoria: una medida de protección jurídica para personas discapacitadas”. *RDUNED*. 1. zk. 171. orrialdetik 198.erakoak.

JORDANO FRAGA, F. (2004). “Algunos aspectos del régimen de la indignidad sucesoria en relación a la legítima dentro del Código Civil”. In *Libro homenaje al Profesor Manuel Albaladejo García*. I. liburukia. Murtziako Unibertsitatea. 2553. orrialdetik 2571.erakoak.

MASOT MIQUEL, M. (1990). “El Código Civil y su aplicación en el Derecho civil balear”. In *Centenario del Código Civil (1889-1989)* (1990).

II. liburukia. Centro de Estudios Ramón Areces. Madril. 1299. orrialde-
tik 1332.erakoak.

MASOT MIQUEL, M. (2000). “Los principios generales del Derecho
sucesorio balear”. In *Derechos civiles de España*. Aranzadi. VIII. liburukia.
Iruñea. 4889. orrialdetik 4931.erakoak.

MENA-BERNAL ESCOBAR, M. J. (1994; maiatza-ekaina). “Sentido
histórico de la indignidad para suceder”. *Revista Crítica de Derecho
Inmobiliario*. 622. zk. 1071. orrialdetik 1147.erakoak.

RAMOS GIL, F. *Dictamen sobre la proposición de ley de indignidad suce-
soria por violencia machista en el Parlament de Illes Balears*. In [http://www.
notariosyregistradores.com/doctrina/ARTICULOS/2009-indig-
nidadsucesoriabalears.htm](http://www.notariosyregistradores.com/doctrina/ARTICULOS/2009-indignidadsucesoriabalears.htm).

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (2004). *Informe de la Real Academia
Española sobre la expresión violencia de género*. In [http://www.uv.es/ivo-
rra/documentos/Genero.htm](http://www.uv.es/ivorra/documentos/Genero.htm).

SANCHO REBULLIDA (1957). “Sobre la naturaleza y encuadre sis-
temático de la indignidad para suceder”. *Temis*. 1. zk. 153. orrialdetik
156.erakoak.

TORRES LANA, J. A. (2000). “Panorama del Derecho civil de las
Islas Baleares”. In *Derechos civiles de España*. Aranzadi. VIII. liburukia.
Iruñea. 4717. orrialdetik 4759.erakoak.

Arautegia:

FERRER VANRELL, M. P.; MUNAR BERNAT, P. A. (arg.) (2002).
Compilación del Derecho Civil de las Illes balears y Ley de Parejas Estables
(bertsio elebiduna). Legislación Civil Balear. Universitat de les Illes
Balears / Parlament de les Illes Balears. Palma.

ESTHER URRUTIA IDOIAGA
*Oinordeko izateko ezduintasuna estreinakoz araututa,
Balear Uharteetako zuzenbide zibilean,
apirilaren 27ko 3/2009 Legearen ondorioz*

Kode Zibila/Código Civil (2007). Deustuko Unibertsitatea. 2. argitaraldia. Bilbo.

Foru-lege zibilak: Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea/Leyes civiles forales: Comunidad Autónoma del País Vasco. Comunidad Foral de Navarra (2005). Deustuko Unibertsitatea. 2. argitaraldia. Bilbo.